407 zenbakia. 2000ko apirilaren 28a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara




## Espetxea

### Senideekin berriketan

OPEL

TALLERES OLA
Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86
OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# *Ama!*

# *Muuuuuua!*

*Maiatzaren 2an*

## Amaren Eguna




**Dune kolonia**
Amaia, Barrenkalea 25



**Diamantezko eraztunak**
Etxeberria, Bidekurutzeta 16



**Eguzkitako betaurrekoak**
Manso, Irizar 2



**Lentzeria**
Zubikua, Barrenkalea 24



**Lore naturalen sorta**
Lislore, Barrenkalea 28



**Poltsa eta oinetakoak**
Galarreta, Irizar 2



**Era guztietako poltsak**
Garnish, San Pedro 12



**Lentzeria**
Gantxegi, Telesforo Aranzadi 2



# Venezuelatik agur t'erdi

**Aitziber Azkondo** / Kazetaria

Alaskako iglu batean edo Amazonaseko tribu batean egonda ere, BERRIGARAkoek topatuko zaituzte. Han, hemen, edo munduari buelta ematen bazabiltza ere ez pentsa ihes egingo duzunik, edonola moldatuko baitira zurekin harremanetan jartzeko. Horrelaxe eta irakurleak beste gauza bat pentsatu baino lehen, Karibe aldeko lurralde hauetatik eskertu egin nahi diet, astekariko kolegei lerro hauek idazteko eskaini didaten tartea, bide batez, ezagutzen ditudan lagun guztiak agurtzeko aukera paregabea baita.

Izugarrizko egun hotzek astindu ohi dutela Euskal Herria azken aldian, eta horrez gain, hilabete hauetan gauza astunak gertatu direla iritsi zaigu honeraxe. Guztiok soberan ezagutzen ditugun albiste negargarri horiek aztertzea kontura ez datorrenez, Venezuelako herrialdean daukagun eguzki ederraren eta bertako bizitzaren inguruan arituko naiz, horrenbeste kontrastedun herrialde honek ez baitu zer ikusirik, askok dakizuen bezalaxe, gure eguneroko bizitzarekin. Bergara bezalako herri batetik Ameriketako hiri handienen artean kokatzen den Caracas batera mugitzeak, nahi eta nahi ez, jokaeran eta eguneroko bizitzan aldaketa eskatzen du. Munduko hiri arriskutsuenetariko bat den honek, ofizialki 6 milioi biztanle jasotzen ditu. Ofizialki diñot, beste hainbat eta hainbat zerrendaratu gabe baitago. "Ranchitos" izeneko txabolismo inguruan bizi direnak edo hiriko zubi eta berdeguneak gaua igarotzeko egokitu behar dituztenak esaterako.

Paisaien magikotasuna, kultura aberats eta venezolarren izaera zabal eta eskuzabalak arreta deitu zidan, gazteen artean atzerriratzeko nahiak egin zidan bezalaxe. Asko eta asko dira etorkizuna beraien lurraldetik kanpo ikusi nahi dutenak, Estatu Batuetan alegia. Munduko petroleo banatzaile handien artean aurkitzen den herrialdea da, izugarrizko aberastasun iturri eta baliabideak ditu baina zoritxarrez, ez dute baliabideak antolatzen jakin eta ondorioz aipatu dudan kontraste edo alde nabaria eman da. Txirotasun eta aberastasunaren arteko muga zorrotza alegia. Eragozpenak eragozpen, hala ere, itxaropenak dirauela esan daiteke. Biztanleria, maiatzaren 28an izango diren hauteskundeetara begira dago. Boteredunen artean bi dira nagusi. Dagoeneko ezaguna dugun Chavez eta, errepublikako presidentearekin bat, 92ko kolpea antolatu zuen Cardenas. Chavezek, oraindik, populazioaren konfidantza du, hala ere, Arias Cardenas piskanaka hurbiltzen ari zaio. Bat edo bestea izan, emaitzek Venezuelaren alde egin dezatela, garai batean ezagutzen zen herrialdea izatera bueltatu dadin.

Horrela eta beste hainbat eta hainbat kontu aipatu nahiez baina, beti ere, aldizkariak eskatzen dituen mugetara egokituz, agur t'erdi Venezuelatik. Ondo izan.<

*"Venezolarren izaera zabal eta eskuzabalak arreta deitu zidan, gazteen artean atzerriratzeko nahiak egin zidan bezalaxe"*

## barruan



**Sonia Aperribai**

Historialaria

***"Justo Garate bekak asko postu nau eta ateak irekiko dizkidala uste dut"***

8.



**Nekane Cid**

Preso baten senidea

***"Bisitatik bueltan isil-isilik etortzen gara. Bisita bakoitzean pena bat ekartzen duzu"***

16.



**M. Urdanoz**

Subijai dendakua

***"Asko gustatzen jat eskaparatia txukun-txukun apainduta edukitzia"***

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

gazte informazioa

**BEKAK**
**Karlos Santamaria Beka**
Donostiako Euskararen Udal Patronatoa.Diplomatu edo antzekoentzat edo taldeentzat. Euskaraz idatzitako ikerketa lanak saritzen dituen beka. Epea: maiatzak 19.
**Graduondoak**
La Caixa. 35 urtez beherakoak eta 1993tik aurrerako unibertsitate titulodunentzako 15 beka.
•Frantzian. Frantsesa menperatu behar da. Epea: maiatzak 30.
•Bretaina Handian. Ingelesa menperatu behar da. Epea: ekainak 30.
•Atzerrian. Hizkuntzak menperatu behar dira. Epea: ekainak 30.

**LEHIAKETAK**
**Denak ezberdinak gara**
Fundación de Derechos Civiles. Arraza, kultura eta belaunaldiekiko tolerantziaren aldeko ipuin eta argazki lehiaketak. Epea: maiatzak 15.
**Felix Ugarte Itzulpen Lehiaketa**
Euskal Herriko Unibertsitatea. Filologia, Geografia eta Historiari buruzko testu teknikoen itzulpenak, euskarara. Epea: maiatzak 22.
**Irun Hiria**. Kutxa Fundazioa; Irungo udala. Poesia eta eleberria, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: ekainak 17.

**LAN ESKAINTZAK**
**Asteburuko prentsan agerturiko lan eskaintzen dossierra**
astero, asteazken egeurditik aurrera, Gazte Informazio Zerbitzuko Kultur Etxeko panelean.

**EKITALDIAK**
**Udalekuak 2000**
Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Trukeak (euskaraz zein erderaz), euskara, ingeles eta frantseseko txandak. Zozketarako izena-emateko epea: apirilak 18tik maiatzak 10era.
**Auzolandegiak atzerrian**.
Rempart. Arkeologiari buruzko eta ondarea zaharberritzeko 200 udako programa Frantzian eta beste 16 herrialdetan. Epea: maiatzak 31.

**IKASTAROAK**
**Udako ikastaroak**. EHU. Mintegiak, jardunaldiak, ikastaroak. Izena emateko epea: maiatzaren 3tik aurrera.
**Ikastaroak gazteentzat**.
Donostiako Udala; Gazteria Saila. 16 eta 30 urte bitartekoentzat. Antzerkia, dantza, txalaparta, ipuin kontaketa, astronomia, grafologia, ligatzeko sekretuak... Epea: apirilak 28.

**KARNETAK**
Nazioarteko Aterpekide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

**INFORMAZIO GEHIAGO:**
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*


Josu Okina

**Frefristo**

Esaera da antzinan formula honekin bataiatzen zituztela ijitoek beren umeak.

*Frefristo frefristo*
*kasta gogorra,*
*neskia baldin bada Maritxu*
*mutilla baldin bada Martintxo,*
*ofizio enpliau*
*astobuztan moztzaille*
*ero txorroztaille,*
*koño!*

## Tenperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

| | Elosu | | | San Juan | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | max. °C | min. °C | euria l/m² | max. °C | min. °C | euria l/m² |
| **Eguena 13** | 13 | 5 | - | 16 | 6 | 0,4 |
| **Eguakitza 14** | 15 | 13 | 3,4 | 19 | 8 | 2,1 |
| **Zapatua 15** | 11 | 5 | - | 16 | 1 | - |
| **Domeka 16** | 12 | 7,5 | - | 18 | 7 | 1,2 |
| **Astelehena 17** | 12,5 | 5 | - | 20 | 4 | 0,2 |
| **Martitzena 18** | 13 | 8 | 5,4 | 16 | 3 | 3,9 |
| **Eguaztena 19** | 11 | 9 | 1,6 | 21 | 9 | 2,5 |
| **Eguena 20** | 16 | 8 | - | 24 | 10 | - |
| **Eguakitza 21** | 20 | 7 | 2,6 | 24 | 12 | 4,3 |
| **Zapatua 22** | 12 | 10 | 3,6 | 16 | 10 | 4,9 |
| **Domeka 23** | 9,5 | 5 | 6,8 | 16 | 7 | 1,7 |
| **Astelehena 24** | 16 | 5,5 | - | 19 | 6 | 0,3 |
| **Martitzena 25** | 19,5 | 11,5 | - | 26 | 13 | - |
| **Eguaztena 26** | 13,5 | 8,5 | 15 | 19 | 9 | 14,9 |

## autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaieg.:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.
**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.
**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. *Domeka eta jaiegunak*: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)
**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.
**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.
**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.*
**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*
**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.
**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaieg.:* 10:05, 19:35.
**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunak:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.
**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaieg.:* 18:00, 20:45.
**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 19:00.
**Bergara-Bilbo.** *Laneg.:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaieg.:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.
**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## Farmaziak

**Eguakitza 28:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Zapatua 29:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Domeka 30:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Astelehena 1:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Martitzena 2:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Eguaztena 3:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Eguena 4:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

## Ogia

**Domeka 30:** Konde.
**Astelehena 1:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitalea | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak



**Irati Sanz**
28an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Paul Azkargorta**
30ean 4 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta lehengusu-lehengusinak.



**Manex Larrañaga**
3an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



**Amaia Uriarte**
29an 4 urte.
Urte askotarako eta muxu bat! Aita, ama eta Ander.



**Asier Kortabarria**
4an 8 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta familiakoak.



**Ion Agirre**
1ean 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Unai eta Nerearen etxekoak.



**Lorea Larrañaga**
1ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Olatz Ibabe**
1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Antzuola eta Bergarako familiak.



**Miren Santa Cruz**
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Jayer Barquero**
30ean 16 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



**Ane Lorea Larrañaga**
28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Jon Ruiz de Egino**
28an 13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Juan Zabaleta**
1ean urtebetetzea.
Urte askotarako aitxa eta muxu haundi bat! Etxekoak.



**Ainhoa Agiriano**
28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Jon Macias**
28an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

*Hurrengo alean, **maiatzaren 5**etik **11**ra bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

## urbanoa

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**Geralekuak:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**Geralekuak:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## hildakoak

**BERGARA**
**Isabel Berroia Balzategi**
Apirilak 14, 92 urte
**Kontxa Aranguren Campos**
Apirilak 15, 91 urte
**Migel Irazola Bilbatua**
Apirilak 20, 83 urte
**Petra Agirre Gonzalez de Durana**
Apirilak 23, 80 urte

**ANTZUOLA**
**Angel Azkarate Lizarralde**
Apirilak 14, 66 urte
**Pedro Antonio Arbulu Arrieta**
Apirilak 24, 71 urte

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Leire Gabo Juaristi**
Apirilak 8
**Ane Moreno Arrieta**
Apirilak 10
**Julio Narbaiza Urrestarazu**
Apirilak 11
**Ibai Agirrezabal Ostolaza**
Apirilak 12
**Miriam Jauregi Larrion**
Apirilak 13
**Naroa Mujika Anton**
Apirilak 16

**ANTZUOLA**
**Eñaut Madariaga Ollokiegi**
Apirilak 8

**REMENTERIA**
**Altzariak**
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

COAR
**Sukaldeak.**
**Horma armairuak.**
**Neurrira egindako altzariak.**
**Ateak eta leihoak.**
**Arozlanak.**
BERGARA ☎ 943 76 58 86

Garnish
*Bitxitegia*
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

# ANTZERKIA

▶ **El vecino de al lado** taldearen **"Cafe es-tress"** antzezlana bihar, zapatua, 23:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

▶ **Free-pelota** taldearekin **"El marido de la Pakita"** domekan, hilak 30, 21:30ean Go-Jam aretoan.

# MUSIKA

▶ **Shamtime jazz** taldea domekan, hilak 30, 23:00etan Soraluzeko Gaztelupen.

# ERAKUSKETAK

▶ **Pilar Muñoz**en oleo erakusketa astelehenera arte Nahikari tabernan.

# LEHIAKETAK

▶ **Bergarako XV. Literatur Lehiaketa**. Lanak euskaraz idatzita izan beharko dira eta adinaren arabera bost talde bereiztuko dira. Lanak entregatzeko epea martitzenean, hilak 2, bukatuko da. 943 77 91 66.

▶ **Pentekoste jaietako kartel lehiaketa**. Derrigorrezko testua "2000ko Pentekoste Jaiak Bergaran" izango da. Irabazleak 100.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak entregatzeko epea martitzenean, hilak 2, bukatuko da.

KONTZERTUA

## *Kamelot*

- Bihar, zapatua, 22:30ean
- Jam aretoan
- Sarrera: 2.500 PTA.

Floridatik etorritako Kamelot talde heavyak kontzertua eskainiko du bihar gauean Jam aretoan. Thom Youngblood (kitarra) eta Richard Warner (bateria) bikotearen lidergopean, taldea 1991n sortu zen. Handik gutxira, Mark Vanderbilt kantaria eta Glenn Barry (baxua) fitxatu zituzten, eta honenbestez, laukotea osatuta geratu zen. Hurrengo bi urteetan abesti berriak konposatzeari ekin zioten eta, aldi berean, taldearen irudi maltzurra plazaratu zuten komunikabideetan. 1993.etik David Pavlicko teklista Kameloteko kidea dugu, taldearen soinua aberastu duelarik. Kameloteko kideek aitortu dutenez, euren abestietan Europako heavya edo jazz klasikoaren eragina nabaria da.

"Eternity" taldearen lehenbiziko lanak sekulako arrakasta lortu zuen 1995ean. Handik gutxira "Dominion" diskoa kaleratu zuten, taldearen heldutasuna eta indarra erakutsiz. Disko horren arraskastaren ondorioz, taldeari jira bat egiteko aukera sortu zitzaion baina Mark kantariak eta Richard bateriak ezin zieten konpromezuei aurre egin, eta, horrela, Casey Grillo bateria eta Roy Khan (Conception taldeko abeslari ohia) ditugu bere ordezkoak. "Siege perilous" lanean erakutsi zuten moduan, biak ere berehala moldatu ziren taldearen estilora. Kamelotek "The fourth legacy" diskoa kaleratu berri du eta lan horretako abestiak zein bere kantu ezagunenak joko ditu bihar Jamen.

Estatubatuarren teloneroak Is Pain izango dira. Madrildarren "1999" diskoak harrera ona jaso zuen heavy melodikoaren jarraitzaileen artean.




Kamelot taldeak lau disko kaleratu ditu orain arte.

Argibideak 943 77 91 58 zenbakian.

# IKASTAROAK

▶ **Literatura tailerra** Juan Martin Elexpuru idazlearen eskutik, maiatzaren 4tik ekainaren 1era bitartean Arrasaten. Klaseak astelehen eta eguenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 943 77 00 65.

▶ **Arrasateko Wing Tsun** taldeak antolatuta, emakumeentzako autodefentsa ikastaroa maiatzaren 6tik 27ra, zapatuero, 10:00etatik 12:30era. Argibideak: 610 90 26 30.

▶ **Antzerki-klown** ikastaroa maiatzetik ekainaren erdialdera arte, Arrasaten. Argibideak eta izen-ematea 943 77 00 65 telefono zenbakian.

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

# DEIAK

**Hitzaldia**: Ingurugiro batzordeak antolatuta, **Alberto Frias**ek "Geroa lurretik hasi" izenburuko hitzaldia emango du eguaztenean, hilak 3, 19:30ean Kultur Etxean.

**Lasai-Toki** elkarteko bazkideen batzar orokorra domekan, hilak 30. 10:00etan lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.

**Fatimara peregrinazioa** maiatzaren 2tik 6ra bitartean, frantziskotarrek antolatuta. Argibideak: 943 78 09 51.

**Ipintza institutua**. 4. DBH-ko ikasle eta guraso guztiei zuzendutako bilera informatiboa eguaztenean, hilak 3, 18:30ean Ipintza institutuan.

**Aranzadi Ikastola**. 4. DBHko ikasle eta guraso guztiei zuzendutako bilera informatiboa eguenean, hilak 4, 18:30ean ikastolan (San Martin plazan).

**Elkartasun eguna** maiatzaren 6an Bilbon, Gestorak antolatuta. Sarrerak eta autobus txartelak Arranon eta Pol-Polen salgai.

**Odol emaleen elkarteak** jakin arazi duenez, bailarako batzar orokorra datorren urriaren 8an izango da azkenik, Arantzazuko hospederian bazkaria izango delarik.

# JAIAK

**San Prudentzio jaiak**
Elorregin: gaur, eguakitza, San Prudentzio eguna, 19:00etan Meza Santua. Bihar, zapatua, 14:00etan auzo bazkaria Alkartasunan, Egaña eta Peñagarikano bertsolariekin eta "Los pamplonikas" jota kantariekin. Gauez, 22:00etan, erromeria. Azkenik, domekan, Alai-Taldeak abestutako meza 11:00etan eta 11:45etan pilota partiduak.

**Labegaraietako jaiak.**
Bihar, zapatua, plater tiraketa San Kristobalen, 16:00etatik aurrera eta gauean, 21:30etan, losu eta lokin trikitilariek alaitutako auzo afaria Zabalan. Domekan, 16:00etan, mus txapelketa Agirrebeñan eta astelehenean, hilak 1, txirrindulari lasterketa 10:00etan, marrazki lehiaketa 11etan, Meza Nagusia 11:30etan eta 16:00etan kukañak eta buruhaundiak Kiroldegian.

# KINTADAK

**1935**ean jaiotakoen bazkaria Azpeitxi jatetxean maiatzaren 6an. Txartelak Azpeitxi jatetxean bertan edo Lazpiur harategian.

**1960**an jaiotakoen afaria maiatzaren 27an Tartufo jatetxean. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Kutxako 0123018798 kontu korronte zenbakian.

# ZINEA

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**
**American beauty**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30.
**The searchers**
Eguena, Forum Cinematographe: 21:30.

**ARRASATE. Alai zinema**
**Hoy empieza todo**
Eguakitza: 22:00.
**Erin Brockovich**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**
**Historia de lo nuestro**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**
**Yoyes**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 22:15.
**Como ser John Malkovich**
Domeka: 22:15.
Astelehena: 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.
**Pokemon**
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 17:00, 19:30.

**ELORRIO. Arriola**
**Huracan Carter**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
**Mandibulas**
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.




**AMERICAN BEAUTY**
**Zuzendaria:** Sam Mendes.
**Aktoreak:** Kevin Spacey, Annette Benning. ≥*18 urte*
Aurtengo Oscar sarietan irabazle nagusia, bost Oscarrekin, tartean filme, zuzendari eta aktore onenari (Kevin Spacey) zegozkienak eskuratuz. Teorian behintzat *Lester Burnham*ek (Spacey) guztia dauka: familia, lana, etxe eder bat..., baina familia bizitza desastre hutsa da. Horren aurrean, eta lanpostua galdu ondoren, iraultzari ekingo dio, ustekabeko emaitzekin gainera.

**THE SEARCHERS**
**Zuzendaria:** John Ford.
**Aktoreak:** John Wayne, Jeffrey Hunter, Vera Miles. ≥*13 urte*
Forum Cinematographe taldeak antolatutako klasikoen zikloari amaiera emango dio *The searchers* (*Centauros del desierto*) filmeak. Monument Valley paraje zoragarrian girotuta, 1956. urteko western mitikoa dugu hauxe: neskatila bat zenean indioek bahitutako ilobaren bila joango dira osaba eta bere lagun bat...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

*izeder*
**ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak**
943 76 71 05. Arruriaga 2

**Jai zoriontsuak opa dizkie bere lagun eta bezeroei**
**KINTOENTZAKO BAZKARIAK, JAUNARTZEAK, EZKONTZAK, BATAIOAK...**
***Igandeetan zabalik enkargatuz gero***



**ZABALA**
JATETXEA • OSTATUA
Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

**Sonia Aperribai bergarar gazteari egokitu zaio aurtengo Justo Garate Arriola beka. Sonia Historian lizentziatua da eta "Generoko harremanak Bergaran: gure emakumeen ohiko bizitza lehenengo industrigintza garaian, 1870-1930" gaia ikertzen ari da.**

SONIA APERRIBAI
Historialaria

# "Justo Garate bekak asko poztu nau eta ateak irekiko dizkit aurrerantzean"


Soniaren ustez, emakumean oinarritu delako eman diote beka.

**G.** Zergatik aukeratu zenuen gai hau?

**E.** Ez dakit feminista naizen edo ez, baina emakumearen inguruko gaiez beti arduratu izan naiz. Honela, historiako ikaslea nintzen garaian, historian bertan ere emakumearen inguruan hutsune handia nabaritu nuen. Badirudi historia gizonek soilik egin izan dutela. Hau izan da gaia aukeratzeko arrazoi nagusia.

**G.** Emakumeak arlo asko jorratu izan ditu hainbat garaitan; zergatik industrigintza gaia?

**E.** Jakina arlo asko jorratu dituela, horregatik, hain zuzen ere, lantzen ari naizen gaiaren izenburuan dio "generoko harremanak". Industria mundua 1870 urtetik 1930 urtera oso garatuta zegoen Bergaran. Hori horrela izanda pertsonen zein familiaren ohiko bizitza baldintzatu egiten du erabat. Honela, industriaren ildoa jarraituz, honen eraginak zein ziren ere aztertzeko aukera izango dut eta pertsonen arteko harremanetan izandako eragina; emakumeengan batez ere.

**G.** Ikerketa burutzeko zein iturri darabilzu?

**E.** Ikerketa lan baterako lehenengo urratsa bibliografia lantzea izaten da, dagokizun gaiaren inguruko liburuak aurkitzea azken batean. Nire kasuan, industrigintza, emakumea industrian eta eusko bizitzaren inguruko liburuak aztertzen ari naiz. Honen ostean iturri zuzenetara joko dut. Izan ere, oraindik hilabete baino ez daramat eta aipatutako lehenengo urratsean nago. Esan bezala, beraz, ostean iturri zuzenetara joko dut: Udal Artxibategira, erroldak, industria matrikulak, zergak, jaietako egitarauak... eta honelakoak lantzeko; Mariaren Lagundiko artxibategira, garaiko emakumezkoek zer ikasten zuten aztertzeko; eta azkenik Algodonerako artxibategira ere joko dut. Azken artxibo honetan, langileen zerrendak, soldatak, lan orduak eta honelako datuak egongo direla uste dut.

**"Historian bertan ere, emakumearen inguruan hutsunea nabaritu nuen ikasle garaian. Horregatik da emakumea nire lanaren ardatza"**

**G.** Nola antolatuko duzu lana?

**E.** Lehenengo bi hilabeteak bibliografia lantzeko emango ditut. Hurrengo seiak artxiboko lana egiteko eta azkeneko hirurak bildutako informazioa antolatu eta idazteko.

**G.** Orain arte, lan bibliografikoan, Bergarari buruzko idatzirik aurkitu duzu?

**E.** Zuzenean Bergarari buruz aritzen den gauza gutxi aurkitu dut. "Casa, familia, trabajo" izeneko monografia batzuk badaude, eta hor industriari buruzko hainbat dato agertzen dira, baita emakume eta umeei buruz ere, baina oso gutxi. Kontuan izan behar da, Euskal Herriari buruzko historia ere oso gutxi dagoela. Kontuan izan oso gai berria dela hemen.

**G.** Zergatik uste duzu bekatu dutela zure lana?

**E.** Ez dakit, agian gaia nahiko berria delako aukeratu dute, izan ere, emakumearen mundua nahiko ezezaguna da eta argi apur bat emateko. Hau, Justo Garate Arriola bekarako lan bat aurkezten dudan bigarren aldia da, iaz ere saiatu nintzen; orduko gaia "Industrializazioa autarkia garaian" izan zen.

**G.** Ikasketak amaitu berri dituzula, zer suposatzen du honelako lan batek?

**E.** Ate asko irekitzen dituela da garrantzitsuena. Bestalde jende asko ezagutzeko aukera ere ematen du. Aurrera begira ere curriculum-a betetzeko ez dago batere gaizki.

# Inoiz baino turista gehiago izan dugu Aste Santuan herria ezagutzen

## Turismo Bulegoak 333 kontsulta jaso ditu eta 20 bisita gidatu egin dira

**Urtetik urtera gora egiten du Bergara bisitatzera datozen turisten kopuruak. Aurtengo Aste Santuan, 333 kontsulta jaso dira Udaleko Turismo Bulegoan apirilaren 14tik 24ra bitartean.**



Egin diren kontsulta gehienak, 199 hain zuzen ere, euskal herritarrenak izan dira, aurreko urteetan gertatu bezala.
ARTXIBOA

Apirilaren 14tik 24ra bildutako datuen arabera, 333 kontsulta jaso dira Turismo Bulegoan. Kontuan izan behar da, hala ere, kopuru hau ez dela totala; izan ere, Turismo Bulegoa maiatzaren 1era arte dago zabalik, eta apirilaren 24tik maiatzaren 1era arte kontsulta gehiago izango dira. Hori kontuan izanik, apirilaren 24ra arte jasotako 333 kontsultek azaltzen dutenez, urtetik urtera gora egiten du Bergara bisitatzera etortzen diren lagunen kopuruak. 1999. urtean, eta Aste Santu osoa kontuan izanda, 314 kontsulta jaso ziren Turismo Bulegoan, eta 1998.ean, 265.

Aurten egin diren kontsultetatik gehienak, 199 orotara, euskal herritarrenak izan dira, eta honek konfirmatu egiten du, Xabier Aranburu, udal museologoaren esana, Aste Santuan Bergaran ibiltzen den turismoa barrukoa dela, hau da, Euskal Herrikoa.

Aipatzekoa da, beste alde batetik, euskal herritarrek egindako 199 kontsulta horietatik, 55 kontsulta bergararrek egindakoak izan direla.

Euskal Herritik kanpokoen artean, katalanak eta madrildarrak izan dira kontsulta gehien egin dituztenak. Orain urte batzuk Madriletik etorritako turisten kopuruak beheraka egin bazuen ere, aurtengo Aste Santuan oso paretsu ibili dira katalanekin Xabier Aranburuk azaldu bezala: azken hauek 39 kontsulta egin dituzte eta Madriletik etorritakoek 37. Horrez gain, estatuko beste toki batzuetatik etorri direnak 28 izan dira.

Europatik etorritako 23 lagunenetatik, 16 frantsesak izan dira, 3 ingelesak, 2 alemanak eta 2 suediarrak. AEBetatik (Ameriketako Estatu Batuak) etorritako bi kontsulta ere jaso dira eta Hego Ameriketatik etorritako 5.

Bisita gidatuei dagokienez, 20 egin dira: 17 gazteleraz, 1 frantsesez eta bi ingelesez.

## Presoen eskubideen aldeko manifestazioa Erramu Zapatuan

**Jende ugari** bildu zen Erramu Zapatuan presoen eskubideen alde egindako manifestazioan. Deialdiaren egileak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak, Euskal Presoak Euskal Herrira taldea eta Bergarara Plataforma izan ziren. Presoen eskubideen aldeko aldarrikapenak hiru oinarri izan zituen, batez ere: Madrilgo Gobernuari legea betetzeko exijituz euskal presoen euskalherriratzea, gaixo dauden presoak hurbiltzea, eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak askatzea.




Hiru aldarrikapen nagusi izan zituen manifestazioak.

# Aberri Egunean Udalbiltzak deitutako ekitaldi jendetsua

**Laurehun** lagun inguru bildu ziren Aberri Egunean, apirilak 23, San Martin plazan Udalbiltzak deitutako ekitaldira. Aberri Eguna ospatzeko ekitaldi honen barruan, Ikurriña jaso zen udaletxeko balkoian eta bi dantzarik ohorezko aurreskua dantzatu zuten. Udaleko ordezkariei dagokienez, EH, EAJ eta EAko zazpi zinegotzi izan ziren. Bergarako udala Udalbiltzako parte denez, zinegotziek Euskal Herriak nazio gisa dituen eskubide politikoak aldarrikatu zituzten, izan ere, “Euskal Herria nazioa da eta nazio bati dagozkion eskubide politikoak ditu”, luzatutako mezuaren arabera.


Laurehun lagun inguru bildu zen San Martin plazako ekitaldian.

Bestalde, aurtengo Aberri Egunak, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa oinarritzat hartzen duen eraikuntza libre eta demokratikoari zabaldu dio leihoa alderik alde, ekitaldian adierazi bezala, “inposaketa eta zapalketa orori aurre eginez, irekitasuna ikurtzat harturik”. Hori horrela, herrigintza guztion eginbeharra dela gaineratu zuten, eta Udalbiltzaren iritziz, etorkizuna euskal herritarren eskuetan dagoela, herri honen eraikuntza nazional eta demokratikoaren eskuetan.

## Komiteen udako brigaden aurkezpena

**Komite** Internazionalistak, 2000. urteko udako brigaden aurkezpena egingo du maiatzaren 3an, Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean. Aurten, Kolonbia, Nikaragua, Mexiko eta Kubarako brigadak antolatu ditu.

## Elkoro eta Askasibar gose greban

**Iñigo Elkoro** eta Mikel Askasibar presoek gose greba hasi zuten astelehenean, hilak 24. Elkoro Alcala Mecon dago eta Askasibar Herreran. Bestalde, Gazteluk hilaren 17an utzi zion grebari 28 egun jan gabe egon eta gero.



Baraualdia egin zuten lagunetako batzuk udaletxeko arkupean.

## Baraualdia egin zen plazan presoen alde

**Bergarako** Amnistiaren Aldeko Komiteko hainbat kidek baraualdia egin zuten apirilaren 14, 15 eta 16an euskal presoen euskalerriratzea eskatzeko. Baraualdia plazan bertan izan zen: eguakitzeko enkartelada bukatu ondoren hasi zen, 20:00etan, eta amaitu igandean. Baraualdira lotu ziren lagunek, San Martin plazan egokitu zituzten kanpin dendak gaua bertan emateko. Amnistiaren Aldeko Komiteak, euskal presoen eskubideak aldarrikatu nahi izan ditu baraualdiarekin, eta euskal presoek daramaten borroka denona dela ere adierazi nahi izan dute.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

GISASOLA BURDINAKI DENDA
*"Erratzu"*
San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

# Autobideko lanean ziharduen langilearen heriotza salatu dute ELA, LAB eta ESK-k

**ELA, LAB eta ESK** sindikatuek deituta, kontzentrazioa egin zuten hainbat lagunek apirilaren 17an San Martin plazan. Kontzentrazioa, apirilaren 12an Maltzaga-Urbina autobideko eraikuntza lanetan gertatutako langile baten heriotza salatzeko izan zen.

Istripua gaueko 21:00ak aldera izan zen, Maltzaga eta Urbina lotuko dituen A-1 autobideko tunelaren sarreran. Hildako 45 urteko langileak, elektrikaria lanbidez, deskarga elektriko bat jaso zuen tranformadore bat martxan jartzen hasi zenean. Gurutze Gorriak Arrasateko ospitalerako bidean zeramala hil zen.

Gauzak honela, ELA, LAB eta ESK sindikatuek, gertakari hau zein 2000. urtean Euskal Herrian dagoeneko gertatu diren beste 29 heriotzak salatu nahi izan dituzte, "langileek lanean dituzten baldintza negargarriak agerian uzten baitituzte" berauen iritziz. Bestalde, lan baldintza hauek askotan, heriotza dakartela ere gaineratu dute, "apirilaren 12an Bergaran gertatutakoa esaterako".



Euskal Herrian 2000 urtean gertatutako beste 29 heriotzak ere salatu ziren.

Horrez gain, heriotza hauen aurrean patronalak duen ardura ere salatu zuten sindikatuek, oraindik orain, "enpresa askok ez baitu ez arrisku ebaluaziorik, ez prebentzio egitasmorik egin, 1996. urteaz geroztik Lan Arriskuen Prebentzio Legean bilduta dagoen bezala".

Bestalde, administrazioaren utzikeria ere salatu zuten, izan ere, berari dagokio sindikatuen hitzetan, "lan baldintzen eta enpresetan arriskuak prebenitzeko egitasmoen jarraipena eta kontrola egitea, zein betetzen ez diren kasuetan zigortzea".

## Jende ugari eta eguraldi ederra Erramu Zapatuko ferian

**Giro aparta** izan zen Erramu Zapatuko ferian. Postu eta abelburuak ugari izan ziren eta baita hauek ikustera hurbildutako jendea ere. Bestalde, eta aurreko egunetako eguraldia euritsua izan bazen ere, feria egunean aterri izan genuen.

Feriari dagokionez, goiz eta eguerdi partean, animalia zein baserriko produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera egon zen eta arratsalde partean, herri kirolek eta haurrentzako jolasek alaitu zituzten bertaratutakoak, eta amaitzeko, gauean, bertso jaialdia izan zen pilotalekuan, Lizaso, Sarasua eta Egaña bertsolariekin beste batzuren artean.







Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

Berrigara

407 zenbakia.
2000ko apirilaren 28a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Posta elektronikoa:**
**berrigara@topagunea.com**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.
**Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Alex Labaien, Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### USONDOKO PARKEAREN EGOERA

Urte asko dira Usondoko parkera azken aldiz joan nintzenetik. Gogoan ditut parkea inauguratu zutenean, lagunartean, han igarotako udaberri eta uda parteko arratsaldeak. Esan bezala, urte asko neramatzan bertara itzultzeke. Aurten, aspaldiko partez, Aste Santuko egunetan Bergaran geratu naiz (egia esan, lasaitasun bila alde egiten duenak hobe du Bergaran geratzea), eta egun batean Usondoko parkearen ondotik pasatzerakoan, eta nahiko jende gutxi zegoela ikusiz, parkera sartu nintzen nire ilobekin, beraiei ere parkearen lasaitasuna eta berdeguneak gustatuko zitzaielakoan.

Egia esan, hainbat urte igaro ondoren, berriro ere parkera itzultzi eta etsipenez bete nintzen. Gure mutiko garaian (duela 15 bat urte) parkea oso ondo zainduta zegoen: bedarra ondo moztuta, paperik edo zaborrik ez belarretan... Orduan parkeko zaintzaile bat zegoen eta parkearen egoera ezinhobea zen.

Gaur egun, tamalez, egoera bestelakoa da. Berdeguneak ez daude behar bezala zainduta eta parkera joaten direnek ere errespetu falta nabaria azaltzen dute ingurugiroarekiko. Parkera joan nintzen egunean zabor ugari zegoen eta parkeak itxura eskasa zeukan. Badakit Aste Santuan eta uda partean Turismo Bulegoa zabaltzen dela herrian. Zein izango da turistek Bergarari buruz izango duten irudia parkera joaten badira? Horrelako gauzak zaintzeari duen garrantzia eman behar zaiola uste dut. Gainera, komentatu didatenez, parkea behin baino gehiagotan egoten da zaborrez beteta. Itxura denez, gazteak gauez parkera sartzen dira eta hurrengo goizean bertara joaten direnek horren ondorioak jasan behar izaten dituzte. Antza denez, astebukaeretan, parkea ez da garbitzen eta horri soluzioren bat topatzea beharrezkoa ikusten dut.

Utzikeriaz ez dezagun Usondoko parkearen balioa galdu. Ea guztion artean garai batean parkeak zeukan edertasuna berreskuratzen dugun.

*N. Zabala*

**tira biraka** usoa mendikute



## atrebentzia ezpada

# *Elian haur kubatarraren inguruan sortu den arazoari zer deritzozu? Zeiñekin uste dozu egon bihar dala?*



**Alaitz Jauregi**

Neri pentsatzen jat polizia gogorregi sartu zala haurraren bila, baiña argi dagona da umia bere aittarekin egon bihar dala, eta kitto.



**Ander Larrañaga**

Hau dana, Estatu Batuek Kuba atakatzeko modu bat izan dala pentsatzen jat, eta umia bere aittarekin egon bihar dala.



**Pablo Zabaljauregi**

Neretako hau dana kontu politikua izan da, eta mutikua erabili egin dabe. Uste dot umia aittarekin egon bihar dala, aitta aitta da eta.



**Juan Iturralde**

Nik uste dot komunikabidiek gehixegiko inportantzia emun dotzela asunto honi. Dana dala, mutikua, onduen bere aittarekin.



**Feliciana Pastor**

Herrialde horiek ez dira zein ume bat horrela erabiltzeko, esplotatu egin dabe eta. Nere ustez aittarekin bizi bihar da ume hori.



**Antoni Garcia**

Kuba eta Estatu Batuen arteko arazo bat dala pentsatzen jat, asunto politiko bat. Aitta baldin badauka, umia aittarekin egon bihar dala.

## bai, esan!

*Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.*

### ERRAMU ZAPATUAN GAZTELERA BARRA-BARRA

**I. Alberdik** mezu bat utzi zigun BERRIGARAKO erantzungailuan joan zen astean. Alberdik apirilaren 15ean Bergaran ospatutako Erramu Zapatuko feriaren gainean kexa bat azaldu nahi du sail honetan. Azken urteotan antzeman duenez, feriara etortzen diren saltzaile askok eta askok ez dakite euskaraz eta gaztelera hutsean mintzatzen dira erosleekin "bertakoenak" diren produktuak saltzeko.

Ustez euskal kulturarekin zerikusia duen feria batean horrelakoak gertatzea ez zaio bidezkoa iruditzen I. Alberdiri eta horren aurrean neurriak hartzea eskatu nahi dio dagokionari. Bere ustetan, feria baten kalitatea ez da abelburu eta postuen kantitatearekin bakarrik neurtzen.


EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

Ganbara
TABERNA
Heure erara ibiltzeko!
Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

MP
Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
Pintura-lanak orokorrean
Pintura industriala
Zoru arinak: sintasolak, moketak...
610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Maxim's
☎ 943 76 20 61

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

Arantza
Erlojutegia
Barrenkalea 4
943 76 10 04

adituen esanetan

# Hartzak eta otsoak arriskuan



JUANJO NOGUEIRAS

*Naturzalea*

Ganaduzaleen kexak direla eta, duela aste batzuk, Frantziako agintariek orain dela sei urte Piriniotan barneratutako hiru hartz eslobenoak (bi ar eta eme bat eta euren kumeak) harrapatu eta kanporatzea erabaki zuten. Bere garaian hartzak Piriniotan barneratu ziren inguru horretan plantigrado horien kopurua handitzeko helburuarekin (gaur egun, hamarretik gora ei daude bakarrik). Hartzen "biztanlegoak" aurrera egin ahal izateko, gutxienez, 50en bat hartz behar ei dira eta horrek ere zerikusia izan du hain neurri zorrotza hartzeko.

Hartz arrea Pirinioetatik desagertuko da epe laburrean azken hamarkadetan ganaduzaleen eta nekazarien partetik izan duen jazarpenaren erruz. Ganaduzaleek eta nekazariek etsaitzat hartu dute eta, ondorioz, legez kanpoko uxaldiak, harrapagailuak, lakioak, pozoiak eta isileko ehiztarien eskopetak izan dira hartzen biztanlegoa gutxitzeko errudun nagusiak. Garai batean hartz asko zegoen inguru batean, gainera.

*"Ganadu hilketak gertatzen direnean, berehala uxaldiak antolatzen dira, kasu askotan administrazioaren oniritziarekin, gainera"*

Otsoekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Otsoak batik bat ardiak akabatzeagatik dira ezagunak. Ondorioz, Penintsulako zatirik handienean desagertu dira eta, gaur egun, otsoen %90 Gaztelan, Galizian eta Leonen batzen da. Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, egoera are eta tamalgarriagoa da: Gipuzkoan ia erabat desagertuta dago (noizean behingo agerpenak salbu); Araban eta Bizkaian, berriz, badirudi badaudela otsoen asentamendu batzuk, eta, harrigarria bada ere, haztegi zona batzuk ere bai. Baina ganadu hilketak gertatzen direnean, berehala uxaldiak antolatzen dira, kasu askotan administrazioen oniritziarekin, gainera. 1987 eta 1995 bitartean 34 otso akabatu zituzten Bizkaian. Honen aurrean, animalien babeserako erakundeetatik kalte ordain politikak, aseguruen kontratazioak, ardi txakurren erabilpena eta ganaduzaleen kontzientziazioa bultzatzen dira, ondarearen babesagatik ganaduzaleak kaltetuak izan ez daitezen.



Euskal Autonomi Erkidegoan otsoak ia erabat desagertu dira. JUANJO NOGUEIRAS

bergarako errotak



## ASKASIBAR BOLU

Bere izenak eta kokalekuak dioten bezala, errota izandakoa dugu gaur eguneko baserria.

Bisitan joan ginenean, Valentin Belastegik esan zigun bera baserrian jaio zela eta inoiz entzun gabe zuela errota izan zenik; hortaz, badirudi aspaldi laga ziola errotako lanari.

Angiozar errekako urak hartzen zituen, erreka horren eskuinaldean dago eta.

KOKALEKUA: Angiozar auzoan, Loidi-Bolutik behera, 500 bat metrora.



## ZUBIAURRE ERROTA

### EDO ZUBIAKO ERROTA EDO ERROTAZAR

Esteban Irizar Larrea zen errotaria eta berak jarraitzen zuen 1895ean ere, 1890eko zentsu ofizialaren arabera. 46 urte zituen eta irakurtzen eta idazten zekien.

1899ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Zubiaurreko errota aipatzen da eta baita 1900ekoan ere.

Inguruko bizilagunek esan zigutenez, Zubiako errotako azken errotaria Eulogio Irizar izan zen eta 1941ean hil zen, 64 urterekin.

Deba ibaiaren eskumako aldean zegoen eta bertako uraz egiten zuen lan. Bi harri zituen.

Eulogio Irizarrek zerrategia jarri zuen errota honetan eta, zerrategi eta errota lanak biak batera egiten jarduteaz gain, etxerako argindarra ere bertatik lortzen zuen.

1910ean utzi zien errota-lanei eta bera zegoen lurretan etxeak egin ziren.

Kokalekua: Ozaeta jauregitik 100 metrora, Zubiaurre auzoan.

Antxon Agirre Sorondo





## Txorimalo halakoak!



Urtero gisa txorimalo ugari ikusteko aukera izan genuen **Erramu Zapatuko ferian**. Aurten **35 txorimalo** aurkeztu dira **Jardunek** antolatutako lehiaketara eta honakoak izan dira saria jaso dutenak: A taldean (14 urte arte), 31 txorimalo egon ziren, eta lehenengo saria **Miren Juldain eta bere taldekideek** jaso zuten. Bigarrena, **Iker Etxabarri eta honen taldekideendako** izan zen. B taldean (15etik 60 urte arte), 5 txorimalo aurkeztu ziren. Lehenengo saria **Agurtzane Elortzak** jaso zuen (eskumako irudiko txorimaloa) eta bigarrena **Eneko Garateren taldeak**. C taldean (60tik gora), **Mizpirualde** egoitzatik aurkeztutako txorimaloak jaso zuen. Bestalde, esaldi onenaren saria, **Maite Agirreren taldeak** jaso zuen.



## *Bergarar txistosoenak*

*M**ellizos del Norte", Miguel eta Iñaki Rubio** anaiek osatzen duten txiste-kontalari bikotea **ETBko bigarren katean** izango dugu datorren maiatzaren 5etik aurrera. "La primera noche", **Lorena Bernal** Espainiako Miss-ak aurkeztuko duen saioan hartuko dute parte Rubio anaiek. Dagoeneko grabatu dituzte bi saio. Lehenengoan Lorena Bernalekin batera, **Carlos Sobera** arituko da aurkezle lanetan, eta txiste-kontalarien oso laguna egin da azken hau argazkian ikus daitekeen bezala. Bertan, Carlos Sobera, Miguel eta Iñakiren artean agertzen da.*

## Hidrospeed eta rafting-a Jardunekin

**Bergara ezagutzen** lehiaketa irabazi duen taldeak, **Hik Galdeuk**, jasotako saria gozatzen jardun zuen apirilaren 15etik 16rako asteburuan. Sari gisa, **Bertizerako bidaia** egokitu zitzaien, eta honela igaro zuten: zapatuan **Bertizeko parkea** ikusi zuten eta baita interpretazio zentrua ere. Bazkal ostean, **Bidasoako uretan** murgildu eta zazpi kilometrotan zehar hidrospeeda egin zuten. Igandean, **Iparraldera** joan ziren, eta rafting eginez **Errobi ibaia** jaitsi zuten. Orotara 17 lagun joan ziren, Hik Galdeu taldeko hamabost kideak eta Jarduneko bi arduradun.



# Etxeko bat espetxean

## Nola bizi du familiak senitarteko bat kartzelan egotea?

**Bergaran 11 familia daude senitartekoren bat espetxean daukatenak, eta beste zortzi errefuxiatuta daukatenak. Gaur egun asko hitz egiten da presoez eta beraien eskubideez, pil-pilean dagoen gaia da. Ez dago zalantzarik gizartearen zati nagusia dagoela, adibidez, presoak euskalherriratzearen alde. Baina guk, hori guztia senideek nola bizi duten jakin nahi izan dugu, era honetako egoera bat gertuagotik ezagutu nahi izan dugu. Horretarako, hiru seniderekin elkartu gara.**

***Noiz sortu zen Senideak elkartea, eta ze helburuarekin?***

**Nekane Cid:** Elkarte bezala noiz sortu zen ziur ez nago, baina nire senarra espetxean dagoenetik, duela hamabi urtetik, beste senitarteko batzuekin harremana izan dut. Ez ginen antolatutako erakunde edo elkarte bat, baina elkartzen hasi ginen, bilera batzuk egiten, batez ere, presoen beraien eskubideak bermatu zitezen lortzeko. Pixkanaka-pixkanaka, gero eta jende gehiago elkartzen hasi ginenez, eta beraien egoera ere gero eta larriagoa zenez, elkarte bezala antolatzeko beharra ikusi genuen, era horretan zerbait lortzeko. Ordutik hona, ez nahi genuen guztia, ezta gutxiagorik ere, baina zerbait, behintzat, lortu dugu. Bilera haietan argi ikusten zen jendea asko sufritzen ari zela, baina bakoitzak berea bizi zuela, eta sufritu ere, bakoitzak berea sufritzen zuela, gainontzeko senitartekoak ere egoera berdinean zeudela ohartu gabe.

**Mari Karmen Aiastui:** Senitartekooi asko lagundu digu elkarte bat egoteak, geure artean ezagutu eta batak besteari esperientziak kontatzeko aukera eman baitigu, eta ulertzen zaituen beste familia bat inguruan izateak izugarri laguntzen dizu. Sufrimentu asko dago, eta hori beste batzuekin konpartitzeak zeure zama, pixka bat besterik ez bada ere, arindu egiten dizu.

***Baina horretaz aparte, presoen arazoa gizarteratu, eta beraien eskubideak aldarrikatzeko helburua ere izango duzue, ezta?***

**Nekane Cid:** Bai, behin elkarte bezala osatu ginenetik, gure senitartekoen egoera salatu, eta beraien eskubideen defentsan lan egiten dugu. Gure senitartekoak dira, eta nahiz eta kartzelan egon, beraien eskubideak dituzte, eta baita geuk ere, familia bezala. Aspektu horretan aurreratu dugu, eta lehen esan bezala zertxobait lortu dugun arren, asko dago egiteko. Momentu honetan euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubideari ematen diogu lehentasuna, baina horretaz aparte dauzkaten eta dauzkagun arazo guztiak ahaztu gabe. Eskatzen ditugunak, preso bezala dagozkien eskubideak dira, legeak, beraiek ezarritakoak gainera, horrela diote; dagokiena eta era berean dagokiguna besterik ez dugu eskatzen. 3/4ak beteta dituztenak ere kalean behar lukete, eta gaixo daudenak behar bezala atendituak. Mila eta bat eskubide dituzte errespetatzen ez zaizkienak.

**Karmen Irizar:** Begira, preso bati askatasuna kendu dakioke, horregatik da presoa. Baina dena kentzen saiatzen dira, presoa pertsona bezala ezerezten saiatzen dira. Eta zeure senitarteko bat



**"Asko laguntzen dizu zeure egoera berdinean dauden beste familia batzuekin esperientziak elkartrukatzeak "**

**MARI KARMEN AIASTUI**



**"Orain presoen euskalherriratzeak du lehentasuna, baina gainerako arazoak ahaztu gabe"**

**NEKANE CID**



**"Bisitara zoazenean, inoiz ez dakizu zer gertatuko den: sartzen utziko dizuten, nola tratatuko zaituzten..."**

**KARMEN IRIZAR**




Gaur egun, 11 bergarar daude bai Espainiako eta bai Frantziako espetxeetan preso.

hori guztia sufritzen ikustea oso gogorra da, azken finean, bere sufrimentua zeurea ere bada eta.

***Euskal presoen euskalherriratzearen inguruan, gizarte-babes zabala jaso duzue behintzat.***

**Mari Karmen Aiastui:** Alde batetik bai, baina euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde egotearekin, besterik gabe, ez dugu ezer egiten. Senideok jotzeko zeuden ate guztiak jo ditugu, eta gai honetan behintzat, ez dugu ezertxo ere lortu, dispertsio politikarekin jarraitzen du eta Gobernuak. Lortu dugun bakarra, zuk diozun bezala, gizartearen babesa izan da, baina hitzez bakarrik, partehartze aktiboa eskatzen dugunean, ez da inor bustitzen. Nik uste dut garaia dela herriak, eta kasu honetan Bergarako herriak, lagundu diezagun, eta presoen eskubideen alde zerbait gehiago egin dezagun denok batera . Joan zen asteburuan bertan, presoen gose-grebarekin bat eginez, hiru egunetako barauraldia antolatu genuen Bergaran; lokalen bat lortzeko uste baino zailtasun gehiago izan genuen, eta, azkenean, plazan, kanpoan, pasa behar izan zuten asteburu guztia barauraldian parte hartu zuten hamar gazteek, eta hori benetan lotsagarria da, gizarte osoak onartzen baitu presoen eskubideak errespetatu behar direla, eta gizarteari eskatzen dioguna familiakooi, presoen senitartekooi pixka bat laguntzea da.

***Ze harreman mota izaten duzue preso dituzuen senitartekoekin?***

**Karmen Irizar:** Kartzela batetik bestera asko aldatzen da egoera, eragin handia dauka espetxe bakoitzean dagoen errejimenak, eta baita zuzendariak ere. Normalean, astero izaten ditugu bisitak, telefono deiak ere astero edo hamabostero, eta hilean behin edo birritan vis-a-vis direlakoak. Bisitak lokutorio edo kabina txiki batean egiten dira, eta presoa eta bisitara doanaren artean kristal lodi bat eta barroteak daude. Vis-a-vis delakoan, berriz, zuzeneko harremana dago presoaren eta senitartekoaren artean, baina lagunak ezin izaten dute era honetako harremanik izan presoarekin. Dauzkagun harreman gutxi hauek ere oztopatzen saiatzen dira kartzeletan behin eta berriro.

**Nekane Cid:** Kartzela berean ere, bi presoren artean sekulako ezberdintasunak egoten dira aspektu guztietan. Bai bisitetan, bai telefono eskubidean, eta guztian. Horrekin presoen arteko eta familiarron arteko haserreak eta tira-birak sortu nahi izaten dituzte, baina ez dute horrelakorik lortzen.

***Nolakoa da bisita egun bat?***

**Karmen Irizar:** Segun. Inoiz ez dakizu zer gertatuko den. Noski, sekulako gogoa daukazu zure anaia, semea, senarra, emaztea, alaba edo dena delakoa ikusteko, baina ez da esperientzia gozoa. Dispertsioak familiarroi eragin digun sufrimendua ez da nolanahikoa izan. Asteburuero-asteburuero milaka kilometro egin behar dugu gure semea ordu erdiz ikusteko, eta hori oso gogorra da, bai fisikoki, eta baita psikologikoki ere. Kontutan hartu guraso asko adin handikoak direla, eta osasun arazoak izaten dituztela. Ba ez zaie beste erremediorik geratzen; goizeko ordubietan jaiki, kotxea hartu, eta ez dakit noraino alaba edo semea ikustera. Gainera, haraino joan eta inoiz ez dakizu zer aurkituko duzun: sartzen utziko dizuten edo ez, zer nolako katxeoa egingo dizuten, presoa nola, ze egoeratan, aurkituko duzun, ezta aurkituko duzun ere.

**Mari Karmen Aiastui:** Bisitak, gainera, oso ondo antolatzen dituzte. Kartzela berean dauden presoei egun eta ordu ezberdinetan jartzen dizkiete bisitak, eta horrela bakoitzak geure kabuz egin behar izaten dugu bidaia askotan. Gero, Karmenek esan duen bezala, inoiz ez dakizu haraino iristerakoan zerekin topo egingo duzun. Egun txarra baldin badaukate, sekulako katxeoak egiten dizkizute, boligraforik ere ez dizute sartzen uzten, tratu penagarria ematen dizute, deskuidatuz gero ez dizute bisita egiten ere uzten. Dena dela, uste dut horrelako egoera bat ulertu ahal izateko, bizi egin behar dela, ez dago hitzez azaltzerik.

**Nekane Cid:** Oso esanguratsua da, bestalde, bidaia bera nolakoa izaten den. Gogoratzen naiz garai batean hainbat senide autobusez joaten ginenean, harantza gindoazela berriketan eta umore nahiko onez egiten genuela bidaia. Bueltarakoan, aldiz, denak isil-isilik eta goibel bueltatzen gara. Ez zait inoiz ahaztuko, gauez bueltan loak ezin hartuta baldin banentorren, beti entzuten nituela norbaiten negar-zotinak. Bisita bakoitzean pena bat ekartzen duzu zeurekin.



Senideak sarritan egoten dira elkarrekin, euren arazoen berri eman eta elkarri laguntzeko.

***Azaroaren 1etik gose-greban aurkitzen dira euskal preso politikoak. Nola bizi duzue egoera hori familiok?***

**Karmen Irizar:** Oso gaizki. Badakizu beraien eskubideak errespeta ditzaten borrokatzen ari direla, eta horretarako beraien bizitza arriskuan jartzeko prest daudela. Eta pertsona bat bere bizitza arriskuan jartzeko prest baldin badago, horretara iritsi bada, beste erremediorik ez daukalako dela.

***Ekonomikoki ere gastu asko izango dituzue, ezta?***

**Nekane Cid:** Orain dela gutxi kontuak atera genituen, eta urtero hiru mila milioi pezeta baino gehiago gastatzen ditugu senideok bidaietan. Hori izugarrizko diru pila da. Gainera, lan-egunak ere askotan galdu behar izaten ditugu, bisita batzuk astegunetan jartzen dizkigutelako. Udaletxeari ere eskatu izan diogu laguntza. Zenbat irabazten duzun, zenbat gastatzen duzun e.a. azaldu behar diezu. Ez, ez, dispertsioa ilegala baldin bada, dispertsio horrek eragiten dizkidan gastuak ordaindu diezadatela, eta kitto. Hobeto izango litzateke, noski, presoak ekartzea, baina bien bitartean, ordaindu diezadatela dena. Proposatu zigutena, kilometroko hamar pezeta ordaintzea izan zen; bitartean, beraiek 40 pezeta kobratzen dute. Zer egin behar dugu guk hamar pezetarekin? Beraien eta gure gasolina ezberdina al da, ba?

**Karmen Irizar:** Gastu ekonomikoaz gain, hor ditugu, adibidez, istripuak ere. Bat baino gehiago hil da istripuetan, eta beste askok zauri larriak izan dituzte. Eta hori guztia dispertsioaren ondorio garbia da. Ez gara nekatuko dispertsioarekin amaitu arte, nahikoa baita dagoeneko.

***Zerbait gaineratu nahi duzue?***

**Mari Karmen Aiastui:** Hainbeste gauza daude esateko eta salatzeko! Baina batez ere dispertsioarekin lehenbailehen bukatu beharra azpimarratuko nuke. Dispertsioa bera, eta horrek bai presoei eta bai senideoi ekarri dizkigun ondorioak oso larriak izan dira. Bestalde, herriari laguntza eskatu nahi nioke. Denok bagaude presoak euskalherriratzearen alde, senideoi lagun diezagutela, eta ez dadila berriro pasatu joan zen asteburukoa, penagarria da eta. <



**"Preso bati askatasuna kendu dakioke, baina dena kentzen saiatzen dira, presoa pertsona bezala ezerezten"**

KARMEN IRIZAR



**"Gure senitartekoak dira, eta nahiz eta kartzelan egon, euren eskubideak dituzte, eta baita geuk ere familia bezala"**

NEKANE CID



**"Asko dago salatzeko, baina dispertsioarekin lehenbailehen amaitu beharra azpimarratuko nuke"**

MARI KARMEN AIASTUI

# ARANZADI IKASTOLA

# Batxilergorako aurrematrikulazio epea zabalik

**Maiatzaren 2tik 12ra arte**
Goizez: 8:30-13:00 Arratsaldez: 15:00-18:00

**Batxilergo modalitateak:**
Osasun eta natur zientziak
Gizarte eta giza zientziak

***Edozein unibertsitate-ikasketa edo goi mailako ziklo formatibo egiteko prestakuntza***



**BILERA INFORMATIBOA**
**Maiatzaren 4an, 18:30ean,**
**Plazako ikastetxean.**
**4. DBHko ikasle eta gurasoei zuzendua**

Ikastolen Elkartea

San Martin Plaza 4
Tf: 943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77

PARTAIDE Ikastolak

2000/2001 ikasturtera

# IPINTZA INSTITUTUA

## Batxilergo modalitateak

**Teknologikoa**

**Giza eta gizarte zientziak**

**Natur eta osasun zientziak**

## AURREMATRIKULAZIO EPEA
## maiatzaren 2tik 12ra
### Ohiko matrikula epea: uztailaren 3tik 7ra

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta
15:00etatik 17:00etara



**BILERA INFORMATIBOA**

**4.DBHko ikasleei (16 urte) eta gurasoei zuzendua.**
**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera gobidatzen zaitu.**
**Maiatzaren 3an, 18:30ean.**

B. Laskurain 19
Tf. 943 76 31 42

**Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.**

SAN MARTIN - P

B e r g a r a k o i k

# M. ALTUNA INSTITUTUA

## Goi mailako prestakuntza zikloak

**Administrazio eta finantzak**
**Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak**
**Mekanizazio bidezko produkzioa**
**Proiektu mekanikoen garapena**
**Plastiko eta kautxugintza**

## Erdi mailako prestakuntza zikloak

**Mekanizazioa**
**Ekipo eta instalazio elektroteknikoak**
**Administraritza kudeaketa**

## AURREMATRIKULAZIO EPEA
**ekainaren 1tik 12ra**
**Ohiko matrikula epea: uztailaren 3tik 7ra**
Ordutegia: 09:00etatik 13:00era



- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Ibargarai 1
Tf. 943 76 24 91 / 76 38 40

-PINTZA - M. ALTUNA

kastetxe publikoak




**Bakarra da.**

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.

GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS

*Beti garaiz.*

AENOR ER Empresa Erregistratua ER-0626/2/97
IQNet ISO 9002

www.guipuzcoana.co

# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 57. zenbakia. 2000ko apirilaren 28an.*

# Eltzikortaren eskubideen alde

## Senideak taldeak aurkeztutako mozioa onartu zuen udalak



*EH, EAJ eta EAren botoekin onartu zen elkartasun mozioa.*

**Osoko bilkura berezia egin zuen udalak apirilaren 17an, Senideak taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatzeko. Bozketan lau zinegotzik eta alkateak hartu zuten parte eta aho batez onartu zuten mozioan jasotzen ziren puntu guztiak.**

EH, EAJ eta EAren botoekin "Euskal Presoen eta batik bat Jose Luis Erostegiren eskubide osoak bermatuak izan daitezela, orain, Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatuz" onartu zuten.

Mozioaren bigarren zatian euskal presoen aldarrikapenekin bat egitea eskatzen zen. Horren arabera, zera onartu zuen udalak:

- Euskal preso guztiak kalean izatea, euskal nazio eraikuntzan gizarte osoarekin batera parte hartu ahal izateko eskubidea dutelako.
- Senide eta lagunei jarritako zigorra arintzeko sakabanaketarekin amaitu dezatela eskatzea eta presoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzea.
- Presoen militantzia politikoak eskatzen duen heineko tratua ematea, preso politikoen estatusa aplikatuz.
- Kartzela edo bestelako arrazoiek eraginda gaixorik dauden presoak kaleratuak izan daitezela.
- Entrega eta estradizioekin amaitzea eta Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea bermatzea.

### EKINTZAK

Udalak mozioan eskatzen ziren beste hainbat ekintza burutzeko konpromisoa hartu du. Esate baterako, presoek egindako eskaera horietaz guztietaz gain, Alcala-Meco kartzelako zuzendariari elkarrizketa eskatzea eta baita akordio hauek Arartekoari, Gasteiz eta Iruñeko Parlamentuei eta Giza Eskubideen defentsan ari diren zenbait organismori jakinaraztea.

### ALCALARA BIDAIA

Senideak taldearen mozioari atxikitu zaizkion beste sinatzaileekin batera, udalak ere Alcala Mecoko kartzelara joateko deia egiteko konpromisoa hartu du. Bidaia apirilaren 29an izango da eta martxa horretan presoen udal komisioa egongo da.

### HILABETE PASA

Jose Luis Erostegi, Eltzikorta, martxoaren 23an hasi zen gose greban (apirilaren 25ean, 34 egun bete zituen jan barik) Alcala Mecon.

Senideak taldeak, bestalde, sinadurak jasotzen segitzen du herriko jende esanguratsuenaren atxikimendua jasotzeko. ■

■ ■ ■

**Apirilaren 29an Alcala Mecora joango dira euskal presoen egoera salatzeko**

■ ■ ■

# Trekutzen 50. urteurren

## 1950eko udan ireki zuten herriko plazan Trekutz elkarte

**Apirilaren 30ean urrezko ezteiak beteko ditu Trekutz Elkarteak. Herriko lehenengo elkartea da Trekutz. Antzuolako gazte talde batek elkarte baten beharra ikusi zuen orduan, eta Trekutz elkartea sortzea erabaki zuten.**

Cruz Azkarate da lagun talde horretakoa. Berarekin hizketan izan gara orduko kontuak entzuteko. Hasi aurretik, baina, berak idatzitako bertso batzuk irakurri dizkigu. Elkartea nola sortu zen eta beste hainbat kontu esaten dira bertsoetan, bai eta, Trekutzeko txabola konpondu zuteneko kontuak ere.

*Irimo mendi deitzen zioten*
*gallurraren barrenean*
*bere itzala sarri egiten*
*arbola batzuk aurrian*
*iturritxo bat ur ederrakin*
*ere badauka aurrean*
*Trekutz deritzan txabola dago*
*oso leku ederrian.*

*Hogeita bost bat urte dirade*
*txabola horren inguruan*
*kuadrilla batek egun eder bat*
*hantxe igaro genduan*
*umore onez kontu ta kantu*
*bazkariaren orduan*
*elkarte bat egin zeikiela*
*sartu zitzaigun buruan.*

*Ia ordurik galdu gaberik*
*lasairik hurrengo goizian*
*behar ziraden eskabideak*
*egiten hasiak zian*
*baimena ere eman ziguten*
*behar zan leku guztian*
*"Trekutz" izenez jarri giñaden*
*gure plaza nagusian.*



Argazki honetako beheko ilarako zazpi lagunek osotu zuten Trekuzko lehenengo junta: Ezkerretik hasita: Pepe Bariño, Felix Aseginolaza, Marcelino Garmendia, Faustino Garitano, Antonio Ezkurra (Maistro Antonio), Cruz Azkarate eta Bixente Garitano.

Bertso hauek 1975eko martxoaren 5 eta 6an argitaratu ziren "Basarriren Atalaia"n.

Cruzek ez du oso ondo gogoratzen elkartea ireki zenean urteko zein sasoi zen, baina uda aldera izango zen, "pelota partiduak jokatu ziren. Pepe Bareño sozio zan eta berak jokatu zeban pelotan. Bixente Garitano be ibilli zan"; eta horrelakoak dirudienez, uda partean izaten ziren.

Trekutz elkartea herriko plazan ireki zen. Kultura eta musika elkarte bailitzan ireki behar izan zuten. Frankoren garaiak ziren eta elkarteak sortzea debekaturik zegoen. Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren elkartea sortzeko eta errementeria egon zen lekuan jarri zuten elkartea.

> "Irimo mendi deitzen zioten gallurraren barrenean, Trekutz deritzan txabola dago"

**AITZ-GARBI**
taberna
jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

# a ospatuko dute domekan

## ea, Irimo gaineko txabolan elkartzen zen lagun talde batek

**URREZKO EZTEIAK**
Hilaren 30ean, domekan, ospatuko dute Trekutzen berrogeita hamargarren urteurrena. Horretarako hainbat ekitaldi antolatu ditu gaur egungo zuzendaritzak. Goizeko 09:00etan ikurrina ipiniko dute. 10:00etan txafleruen jaurtiketa eta txistularien kalejira. 11:30ean meza nagusian Trekuzko bazkide izan diren hildakoen omenezko meza emango da eta bukatu ondoren luntxa izango dute elkartean bertan.

**BAZKIDE KOPURUA**
Gaur egun Trekutz elkarteak 85 erabiltzaile ditu. Hauetatik 60 bazkideak dira eta beste 25 jubilatuak. 1.400 PTA ordaintzen du bazkide bakoitzak hilero, hasierako 14 PTAtik nahiko urrun gelditu den bazkide-kuota. Bazkide gazteena Mikel Jauregi da eta zaharrena, berriz, Jose Lizarralde. Hau erretiratuen zerrendan dago, Trekutzen "Gazte izanak" izena hartzen duen zerrendan.



*Jose Jauregi, Cruz Azkarate eta Juan Antonio Ugarteburu.*

Zuzendaritza orain dela gutxi berriztu dute. Lehendakari berria, bi urtez, Jose Antonio Ugarteburu izango da. Berarekin batera Eusebio Gabilondo, Jose Lizarralde, Jesus Mari Azkarate, Josu Toledo eta Jesus Jauregi arituko dira.

Jesus Jauregik esan digunez, "Trekutzen eguakitz eta zapatu gabetan aspaldian gazte asko ibiltzen da. Lagunkuadrillak etortzen dira afaltzera. Bestela astian zihar jente gutxi ibiltzen da. 30 bat gazte sartu die sozidadian". ■

Cruz Azkarate, Trekutz elkarteko sortzaileetako bat:

### *"Sozidadia,* musico-cultural *bezela zabaldu giñuan"*

**Non zabaldu zen Trekutz elkartea?**
Plazan, gero karamelerua egon zan lekuan.
**Zer egiten zenuten elkartean?**
Sozidadia zabaltzeko aktibidade bat bihar izeten zan eta "musico-cultural" bezela zabaldu giñuan.
**Egunero egoten zen zabalik?**
Sasoi hartan jentia ibiltzen zan, anbiente politta egoten zan. Sukalde txiki bat pe ipiñi zan gero obria egin arte. Azkenengo obria oin hogeta zazpi bat urte baiño gehixago die egin zala.
**Danak gizonezkoak ziren?**
Hor be aldaketak egon die. Egon zan behin erabakixa emakumeik ez sartzekua eta ohitturia zeukanak andriakin juteko ez emakume eta ez gizon etzan juten. Baiña hori ezta beti hola izan. Gaur egun bi emakume dare sozio.
**Junta nola aukeratzen zen?**
Urte morduan zeguanak hartzen zeban, ni neu urte morduan egon naiz presidente eta horregaittik egun baten esan giñuan, "danok pasau bihar gaittuk. Hartu izenen relaziñua eta handik 10 aukeratu eta eren artian pentsau deixela zein izango dan idazkari, zein diruzain, e.a".
**Zenbat balio zuen ardoak, orduan?**
Hiru txakur haundi izeten zan kalian txikitua. Sozidadian etzeguan txikitorik, baiña kalkuluak eginda ardau txikituak, gutxi gorabehera, 15 zentimotan irtetzen zeban.

Igor eta Txomin
Margoak orokorrean
ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

Arin
JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

GOROSTi
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

# Ibilgailuen aurtengo zerga

**Dagoeneko hasi da** udala trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga kobratzen, hau da, auto, kamioi, motor, erremolke, autobus eta traktoreen urteroko udal zerga. Ekainaren 15era arte ordaindu ahal izango da eta helbideratu barik duenak, udaletxera jo beharko du ordaintzera. Kamioiei dagokienez, atzean erremolkea dutenek, udal zerga berezia ordaindu beharko dute. Hau da, kamioiari dagokiona eta erremolkeari dagokiona.



| ORDAINDU BEHARREKOA | |
|---|---|
| **Autoak:** | |
| 8-12 HP fiskalak | 8.130 PTA |
| 12-16 HP fiskalak | 17.165 PTA |
| 16 HPtik gora | 21.380 PTA |
| **Motorrak:** | |
| Ziklomotorrak | 1.055 PTA |
| 125 cc | 1.055 PTA |
| 125-250 cc | 1.805 PTA |
| 250-500 cc | 3.615 PTA |
| 500-1.000 cc | 7.225 PTA |
| 1.000tik gora | 14.455 PTA |
| **Kamioiak:** | |
| 1.000 kg-tik behera | 10.090 PTA |
| 2.000-2.999 kg | 19.875 PTA |
| 3.000-9.999 kg | 28.308 PTA |
| 9.999 kg.tik gora | 35.385 PTA |
| **Traktoreak:** | |
| 16 HPti behera | 4.215 PTA |
| 16-25 HP | 6.625 PTA |
| 25 HPtik gora | 19.875 PTA |

# Lore ederren lehiaketa

Bosgarren aldiz balkoi eta leihoetako lore apainketa saritzeko prest dago udala. Horretarako antolatu dute "Balkoi eta leihoetako lore-apainketa lehiaketa" eta parte hartzea oso erreza da. Egin behar den gauza bakarra hemendik eta San Juan bezpera arte etxeen kanpoaldean jartzen diren lorak zaintzea da. Orduan banatuko dira eta, sariak. 15.000 PTAko bi sari banatuko dira: alde zaharreko lora ederrenari eta auzo eta etxe berriagoko balkoi eta leiho ederrenari.

## UMEENTZEKO UDALEKUAK PRESTATZEN

**Uztailean zehar** egiten diren udalekuetarako begiraleak behar dira. Hori dela eta, 18 urtetik gorako gazteei deia egin die udalak uztailean begirale lanetan aritzeko. Udalekuak uztailaren 3tik 13ra bitartean izango dira goizeko 09:30etik eguerdiko 13:00ak arte. Izen-ematea maiatzaren 5era arte egongo da zabalik, bai begirale izan nahi dutenentzat, bai eta haurrentzat ere. Umeak 5 urtetik 12ra artekoak izango dira eta izen emateak 2.000 PTA balioko du.
Begirale izateko izena ematea udaletxean eta udal liburutegian egingo da. Bete beharrekoak honako hauek izango dira: gutxienez 18 urte izatea, euskaraz egitea eta Antzuolan bizi izatea.

**Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon**

**1. Eskribidu leikeda papel honetan?**

1. ..........................................

**2. Juaten gara trago bat hartzera hurrengo tabernara?**

2. ..........................................

Izen-abizenak eta telefonua: ..........................

**bertako hizkeria**

IDOLAZ ANTZUOLA

*Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:*
*1. Muturrez aurrera jausi eta hankia apurtu dot/neban.*
*2. Iez/Juan zan urtian goiz ikusi giñutzen edur malutak.*
***Sarituak: Izaskun Fernandez eta Imanol Lizarralde.***

**Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegixan, DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian **5.000** pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko dittugu hamabostero.

HARIZKI
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Bergarako
# OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXEA, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ezkerra. 943 76 26 64

■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

*Osasunez bizi izateko!*

# Ipintzako adin mugarik gabeko txapelketa ekainean eta uztailean

## Nesken eta 30etik gorakoen txapelketak ere izango dira

**Lagunak Kirol Elkarteak antolatuta, adin mugarik gabeko futbol txapelketa jokatuko da ekainean eta uztailean Ipintzan. Horrez gain, nagusien eta nesken futbol zazpi txapelketak ere izango dira; partiduok Ipintzako zabaleran jokatuko dira. Antolatzaileek azken edizioetako arrakastari eutsi nahi diote.**



Argazkian, Gore (txapeldunak) eta Bildurbarek taldeak, iazko finalistak.

Iaz, 23 talde izan ziren lehian adin mugarik gabeko txapelketan, eta antolatzaileek antzeko partaidetza lortzea espero dute aurten. Joan zen urtean egin zen bezala, partaideen arabera, taldeak lau edo bost taldeko multzotan banatuko dira. Ez dira 20 talde baino gehiago onartuko eta, beraz, izen ematearen lehentasuna gordeko da. Partiduak buelta bakarreko liga sistemari jarraituz jokatuko dira maiatzaren 29tik aurrera, astebarruan 19:15etik 20:30era bitartean. Iaz bezala, partiduak ordubetekoak izango dira.

Txapelketan parte hartuko duten jokalariek 2000ko maiatzaren 1ean, gutxienez, 16 urte beteta izan beharko dute. Antzuolan, Elgetan edo Bergaran jaio edo bizi direnek parte hartu ahal izango dute, eta talde bakoitzak, gehienez, 4 jokalari federatu izan ahalko ditu. Hala ere, jokatzerako orduan, zelaian, gehienez, hiru jokalari federatu egon ahal izango dira. Izen-ematea maiatzaren 19ko arratsaldeko zazpiak baino lehen egin beharko da igerilekuetako tabernan. Horretarako, gutxienez 14 eta, gehienez, 21 jokalariren izen-abizenak, taldeko delegatuaren izen-abizenak eta telefono zenbakia eta taldeko kamisetaren kolorea argituz. Maiatzaren 23an, 19:30ean Ipintzan egingo den bileran talde bakoitzak, jokalari bakoitzeko, 1.000 pezeta ordaindu beharko du.

***Ipintzan jokatuko diren hiru txapelketetarako izen-ematea maiatzaren 19ra arte izango da zabalik***

### NAGUSIAK ETA NESKAK FUTBOL ZAZPIAN

Era berean, emakumeen eta nagusien futbol-zazpiko txapelketak ere jokatuko dira. Aurtengo nobedade aipagarriena nagusien txapelketa da, eta, bertan, maiatzaren 1aren aurretik 30 urtetik gora dutenek izango dute parte hartzeko aukera. Partiduak ostegunetan, 19:15ean eta 20:30ean izango dira eta Ipintzako zabaleran jokatuko dira. Izen-ematea (1.000 pezeta jokalari bakoitzeko) maiatzaren 19ra arte izango da zabalik Piszinetako tabernan. Maiatzaren 24an bilera egingo da partaideekin, 19:30ean, Ipintzan.

Emakumeen txapelketari dagokionez, iaz bezala, kadete (13-16 urte bitartekoak) eta nagusien (16 urtetik gorakoak) mailak bereiztuko dira. Joan zen urteko edizioan, maila bakoitzean seina talde aritu ziren lehian, eta aurten ere ez dira sei talde baino gehiago onartuko kategoria bakoitzean. Partiduak (50 minutukoak) eguakitzetan jokatuko dira, 19:00etan, 20:00etan eta 21:00etan.

Aurreko kategorietan bezala, izena emateko epea maiatzaren 19an bukatuko da eta taldeko ordezkarien bilera maiatzaren 22an izango da, 19:30ean Ipintzako aldageletan. Nesken kasuan, jokalari bakoitzeko 500 pezeta ordaindu beharko dira txapelketan parte hartu ahal izateko.


Argazkian, shotokan txapelketan saritutako herriko karatekak.

# Herriko karatekak bikain Bergarako Shotokan txapelketan

**Joan zen** apirilaren 16an Bergarako III. Shotokan txapelketa jokatu zen Udal Pilotalekuan eta bertan Gipuzkoa osoko elkarteek hartu zuten parte, tartean Bergarako Shotokan karate eskolako eta Giartzu elkarteko karatekak egon zirelarik. Bergararrek maila ona erakutsi zuten eta emaitza bikainak lortu zituzten. Ikusle ugari izan zen Frontoian gaztetxoen txapelketa jarraitzeko.

Gerriko motaren arabera, hiru maila bereiztu ziren. Benjamin mailan Ugaitz Iruretagoienak 2. postua eskuratu zuen gerriko berdearekin eta Kepa Odriozola, berriz, hirugarren postuan sailkatu zen gerriko laranja-berdearekin. Infantiletan, nesken artean, Rakel Blanco bergararra hirugarrena izan genuen (gerriko berdea) eta Miren Larrañagak hirugarren postua lortu zuen maila berean, brontzezko domina irabaziz. Infantil mutiletan Aitor Jaso izan zen irabazlea gerriko horiarekin, Aidel Diezen aurretik. Era berean, Markel Larrañaga hirugarren sailkatu zen gerriko marroia zuten partaideen artean.

**SASOI EZINHOBEAN**

Bergarako entrenatzaileak pozik azaldu ziren beren neska-mutikoek lortutako emaitzekin. Aurten inoiz baino hobeto omen dabiltza eta sekula baino emaitza hobeak lortu dituzte Bergarako txapelketaren hirugarren edizio honetan.

Bestalde, eta shotokan karatearekin jarraituz, Markel Larrañaga Gipuzkoako txapelduna eta Oier Tola txapeldunordea datorren maiatzaren 21ean Altzan jokatuko den Euskadiko eskolarteko txapelketan izango dira.

## KARTELDEGIA

**SASKIBALOIA**
**Bergara-Gernika**
Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

**ESKUBALOIA**
**Bergara-Elgoibar**
Kadete mutilak
Domeka. 12:00. Kiroldegia

**GIMNASIA**
**Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa.**
Astelehena, maiatzak 1
11:00 eta 17:30
Kiroldegia

**TXIRRINDULARITZA**
**Labegaraietako saria.**
Astelehena, maiatzak 1
10:00. Labegaraieta

**PILOTA**
BERGARA HIRIA
Irazoki-Retegi/
Albizuri II.a-Jauregi
(promesak)
Saralegi-Begino/Leiza-Galarza
Martitzenean. 19:30
Udal Pilotalekuan
ELORREGIKO JAIAK
Aranzeta-Gutierrez/
Muguruza-Peñagarikano
Domekan. 11:45
Elorregi

## Eskolarteko gimnastak

**Aranzadi Ikastola** taldeko Irati Arteagak lehen postua eskuratu zuen alebin mailako eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketan, Zarautzen. Sarai Gallego (3.a), Virginia Odriozola (4.a) eta Maialen Legorburu antzuolarra (5.a) ere finalean izango dira.

## Txirrindulariak Labegaraietan

**Astelehenean**, maiatzak 1, gazte mailako Labegaraietako XXXVIII. txirrindulari saria jokatuko da goizeko 10etatik aurrera. Partaideek 63 kilometroko ibilbidea bete beharko dute eta 11:35ean espero da txirrindulariak helmugara heltzea.

## Deba Arroko finalera

**Joseba Orgazek** eta Joseba Herranek Deba Arroko pilota txapelketako finala jokatuko dute Soraluzeko bikotearen aurka, astelehenean, hilak 1, 11:00etan Oñatiko pilotalekuan. Finalerdietan Eibarko bikoteari irabazi zioten bergararrek.

## Gimnasia txapelketa

**Astelehenean** Gipuzkoako gimnasia erritmikoko txapelketa jokatuko da Labegaraietako Kiroldegian, 11:00etan eta 17:30ean. Jaione Igartua, Ane Miren Fernandez, Aintzane Narbaez eta Leire Lasa bertan izango dira, Ipurua taldea ordezkatuz.

# Labegaraietako futbito txapelketa



## PARTIDUAK

**ZAPATUAN BARRUAN**
**16:00.** Bildurbarek-A Ze Flaxa . . . . . . . . **Guadalest**
**17:00.** Guadalest-Mongatxurrak . . . . . . **Bildurbarek**

**DOMEKAN BARRUAN**
**16:00.** Artusamak-Fac . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **Ortzi**
**17:00.** Bildurbarek edo A Ze Flaxa-Ortzi . **Artusamak**

## EMAITZAK

A Ze Flaxa-Shaktale . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **2-3**
Mongatxurrak-Urrutxurtu . . . . . . . . . . . . . . . . . . **5-3**
Errotagain-Pagomendi . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **5-2**

### A Ze Flaxa ligatik kanpo

Labegaraietako futbito txapelketaren azken jardunaldian, Shaktale taldeak 3-2ko emaitzarekin irabazi zion A Ze Flaxa taldeari ligako kanporaketan. Ligan zehar bi taldeak C multzoan aritu ziren eta A Ze Flaxak eskuratu zuen lehen postua, 18 partiduetan 46 puntu lortuz. Shaktale, berriz, C multzoko hirugarren tokian sailkatu zen, 37 punturekin. Hala ere, oraingo partiduak hil ala bizikoak dira eta Shaktalek talde indartsua dela erakutsi zuen A Ze Flaxaren aurka. Dena den, kopa txapelketan ezin izan zuen aurrera egin, Mongatxurrak taldearen aurka 4-6ko emaitzarekin galdu baitzuen. Orain liga besterik ez zaio geratzen eta ziur bere arerioek zaila izango dutela Shaktale menderatzeko.
Kopa txapelketari dagokionez, Mongatxurrak (B multzoan bigarren postuan geratu zen Bayer taldearen atzetik) eta Errotagain (D multzoko liderra) taldeek aurrera egin zuten. Astebukaera honetan ere kopa txapelketako partidu interesgarriak jokatuko dira. Bildurbarek-A Ze Flaxa partiduko irabazleak, Ortziren kontra neurtuko ditu indarrak domekan.

Informazio hau babesle hauei esker:

**OGIZUN**
koop. elk.
**okindegia**
San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49
Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
**JAUJA KIROLAK**

## mahoneroak



**ETOR LASKURAIN**
**BKEko jokalaria**

Bi berdinketa lortu ditugu jarraian, Arenasen aurka kanpoan eta Lemoaren aurka etxean, Agorrosinen, joan zen eguenean. Bietako batean garaipena lortzea interesatzen zitzaigun azken partiduetan lasaitasun handiagoz ibiltzeko baina bi puntu horiek ere ondo etorriko zaizkigula uste dut. Arenasen ez galtzeak bere meritua dauka, sailkapeneko aurreneko postuetan baitaude bizkaitarrak. Partidua joku eskasekoa izan zen eta beharbada beraiek gol aukera gehiago izan zituzten. Hala ere, nire ustez berdinketa emaitza justoa izan zen eta horrekin konformatu behar.

Eguenean, berriz, partidua nahiko irekia izan zen eta bi taldeok garaipena eskuratzeko aukerak izan genituen. Hiru partidu besterik ez dira geratzen liga amaitzeko eta etxean Aurrera Ondarroaren aurka izango duguna irabazi beharra daukagu kategoriari eusteko. Zapatuan ere aukera ona izan dezakegu Sestaon, San Pedroren aurka, garaipena eskuratzeko.

## Otsein Saria

Lemoaren aurkako partiduan honako jokalari hauek nabarmendu ditugu:
Oskar Maiztegi . . . . . . . . . . **3 puntu**
Oxel Apraiz . . . . . . . . . . . . **2 puntu**
Josetxo Lizarralde . . . . . . . **1 puntu**
*Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.*

## talde federatuen emaitzak

**FUTBOLA**
**Arenas 1; Bergara 1**
**Bergara 2; Lemoa 2**
Hirugarren maila
**Bergara 5; Almen 0**
Neskak
**Lazkao 1; Bergara 5**
Lehen mailako jubenilak
**Bergara 2; Trintxerpe 2**
Bigarren mailako jubenilak
**Artegorri 2; Bergara 1**
Lehen mailako kadeteak
**Bergara 3; Idiazabal 0**
Infantilak

**ARETO FUTBOLA**
**Ataun 8; Bergara 7**
Jubenil mutilak

**SASKIBALOIA**
**Santo Tomas Lizeoa 71; Bergara 66**
Senior mutilak
**Bergara 56; Donostia 73**
Senior neskak
**Bergara 72; Lagunak 55**
Jubenil mutilak
**Bergara 61; Beasain 75**
Kadete mutilak

**ESKUBALOIA**
**Tolosa 28; Bergara 19**
Senior mutilak
**Legazpia 22; Bergara 12**
Jubenil mutilak
**Bergara 17; Arrate Amaña 11**
Jubenil neskak
**Arrate 26; Bergara 6**
Kadete mutila

# INFORMATIKA IKASTAROAK

HURBIL
Zerbitzu Informatikoak, S.L.
BEEP HURBIL

**ELGOIBAR 20870**
San Inazio 4
Posta kutxa: 195
Tf. 943 74 08 50
Faxa 943 74 29 16
e-maila: belgoibar@datalogic.es

**BERGARA 20570**
T. Aranzadi 3
Tf. 943 76 91 27
Faxa 943 76 93 25
e-maila: bbergara@datalogic.es

**Maiatzaren 2an hasiera**

## CAE SISTEMA

Ordenadorez lagundutako irakaskuntzan 16 urteko esperientziaz, CAEk MERKATUKO METODORIK AURRERATUENA lortu du. 40 IKASTARO BAINO GEHIAGO, merkatuko kalitate onenarekin.

## GURE HELBURUA

Hezkuntza SOLUZIOAK KASU KONKRETU BAKOITZERAKO.
Gure ikastaroak, profesionalek prestatuak dira, programatzaileek, pedagogoek, diseinatzaile-ek..., eta horregatik, gure ikastaro bakoitza kalitate goreneko produktu bat da.

- IKASTARO INTERAKTIBOAK dira %100
- Programa errealaren simulazio zehatza, teoriarekin, praktikekin, galderekin, test autoebaluatiboekin...
- ARIKETAK APLIKAZIO ERREALETAN
- BANAKAKO IRAKASKUNTZA
- Ikasleak bere erritmora eta modu atseginean ikasten du, KOMENI ZAION ORDUAN.

## Eman izena lehenbailehen!

**Eta ordaintzeko erraztasunak!**
Langabe eta jubilatuentzat prezio bereziak
**Maiatzean** matrikulatuz gero, matrikula doan
**Ekipo informatikoak** erosteagatik ikastaroa doan
**Umeendako** ikastaro bereziak




Gainera,
ordenadoreak orduka
alokatzeko aukera daukazu zeure lanak egiteko
edo Interneten ibiltzeko

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Bolun pisu berria, sukalde osoarekin. Garajea igogailuarekin. 629 324 553.

Bidekurutzeta. 619 133 836.

Pisu txiki bat salgai Antzuolan. Etxabea. 943 76 60 20 (gauez).

Apartamentua Zubietan. Erabat berriztua, 50 m². Deitu 670 901 310 telefonora.

Pisua salgai Zubiaurren. Deitu 943 76 23 93 telefonora.

### EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde zaharrean. Deitu 943 76 38 25 telefonora.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

### ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torreviejan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

### ETXE KONPARTITUAK

Etxea konpartituko nuke. 627 046 374 (Diego).

Logela hartuko nuke alokairuan, sukalderako eskubidearekin. 943 76 46 64, goizez (Marilo).

Pisua konpartituko nuke. 667 52 48 98 (Andres).

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Bolu. 2 plaza. Deitu 616 049 865 telefonora.

Antzuolan, Zurrategin. 943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi. Deitu 943 76 47 16 telefonora.

Masterreka. 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. 943 76 72 17.

### ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Boni Laskurainen. Deitu 943 76 47 67 telefonora.

Garajea alokairuan Zubiaurren. Deitu 943 76 23 53 telefonora.

Garajea alokairuan Santa Marinan. 943 76 41 88.

### ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

## 3. LOKALAK

### EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². Interesatuek deitu 607 82 53 06 telefonora.

### ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokon. 943 76 11 13.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Dendako lanetan esperientzia duen emakumezkoa lanerako gertu. 943 76 07 69.

Eskailera eta garajeak garbitzen esperientzia duen pertsona lanerako gertu. 943 76 35 38 (Antonio).

Mutil gaztea lanerako gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile edo beste edozertan jarduteko gertu. 646 820 371.

Apunteak, lanak eta era guztietako dokumentuak ordenadorez. 646 095 338.

Esperientziadun ileapaintzailea; 26 urte. 629 483 847.

Neska, administrari lanetarako eta ordenadorez informeak pasatzeko gertu. 943 76 73 11 (Garbiñe).

**Lokal komertziala** alokairuan Osintxun. 140 m²
943 76 47 62

**Tabernarako ZERBITZARIA** behar da
943 76 39 53

**Tabernarako ZERBITZARIA** behar da
943 76 59 19

**TABERNARI** lanetarako mutila behar da
943 76 15 84

Matxiategi Elektragintza S.L.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

SANTOS
IRRATI-TB
TELEFONIA MUGIKORRA • SUKALDEKO ALTZARIAK • ARGIZTAPENA
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

MANSO ANAIAK
Pintura orokorrean
*Bidekurutzeta 19, 3.*
*943 76 08 67*
*646 585 644*
*606 645 442*

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

**ESKAERAK**

Norbait behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 52 79 (gauez).

Emakumea behar da edadetu bat arratsaldez zaintzeko. 943 76 24 66.

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

9-13 urtekoei mate, ingeles e.a. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

**ESKAERAK**

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzte. Deitu 943 78 09 66 telefonora.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Renault Clio 16V. 93.000 km., egoera onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxsy 49 cc. motorra. 4.500 km. Deitu 943 76 34 80 telefonora.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). Deitu 943 76 37 84 telefonora.

Suzuki motorra. la berria. 130.000 PTA. 943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA. Egoera onean. Deitu 943 76 54 19 telefonora (Raul).

VW Passat 1.6. SS-T. Deitu 943 76 57 71 telefonora.

Citroën AX 1.4. SS-AB. 200.000 PTA. 630 750 099.

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Boxer eta alemaniar artzain arrazako txakurkumeak, pedigriarekin. 696 057 346.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Yashica 108 Multiprogram kamera. 943 76 08 27 (20:00-22:00).

Karro denda, Inesca Viena. Ia berria. 943 76 43 80.

Mendiko botak (43 zkia.) eta futboleko zapatillak (41 zkia.). 943 76 33 59.

Tronpeta berria, prezio onean. 943 78 70 52.

Aluminiozko 16" llanta berriak. 195/60 Vectra. Deitu 943 76 28 07 telefonora.

Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karrodenda. 943 76 39 87.

16" llantak salgai, egoera onean eta merke. Deitu 943 76 54 19 telefonora.

Bi oheko logela oso bat eta egongelako armairua salgai. Estreinatu gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 12 mahai eta plastikozko 50 aulki, prezio ona. 943 76 07 92.

Karro denda egoera onean. Deitu 943 78 70 74 telefonora.

Aulkiak eta mahaiak. 943 76 46 90.

**GALDU**

Apirilaren erdialdera piszinetako gauzez betetako maletatxoa galdu nuen. 943 76 28 68.

Urrezko pultsera galdu dut. Familiakoa. Eskertuko dut. 943 76 57 91 (Toñi).

Belarritakoa, Kiroldegi inguruan. 943 76 23 24.

**BESTELAKOAK**

Conor bizikleta urdina harrapatu didate Artzamendi 17an. 943 76 10 10.


Langai
Euskal Lan Zerbitzua

| | |
|---|---|
| ***KOMERTZIALA*** Bilbo. 28085/3 | ***TORNULARIAK, 2*** Bergara.31317/5 |
| ***DIESEL MOTOREEN TEKNIKARIA*** Bilbo. 30372/2 | ***TAILERRERAKO LANGILEA*** Arrasate. 31316/5 |
| ***AUTOESKOLA IRAKASLEA*** Arabar lautada. 30670/2 | ***GALDARAGILEA*** Goierri. 31318/8 |
| | ***PROGRAMATZAILEA*** Bilbo. 31382/4 |
| ***TEKNIKARI KOMERTZIALA*** Bilbo. 30750/5 | ***SOLDATZAILEAK, 2*** Bergara. 31443/5 |
| ***ILEAPAINTZAILEA*** Bilbo. 30949/2 | ***GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA*** Donostia. 31587/2 |
| ***ITURGINTZA IKASLEA*** Urola. 31068/2 | ***FP II, MEKANIKARIA*** Bilbo. 31760/1 |
| ***IGELTSERITZA IKASLEA*** Goierri. 31207/9 | ***AISIALDIRAKO BEGIRALEAK, 50*** Bidasoa behea. 31768/1 |
| ***INJINERU TEKNIKOA*** Durangaldea. 31282/5 | |
| ***KAMIOI MEKANIKARIA*** Ibaizabal. 31286/1 | ***WEB ORRIALDEAK DISEINATZEKO IRAKASLEA*** Bilbo. 29147/2 |

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



**LOKAL KOMERTZIALA**
**Zubiaurren. 25 milioi pezeta. 310 m².**
**Zerbitzu teknikoetarako aproposa.**
609 413 568
689 865 768



**TABERNARI lanetarako neska behar da**
943 76 53 64



**PISZINETAKO TABERNA**
**Bokadiloak**
**Pintxoak**
**Kazuelitak**
*Boni Laskurain z/g*
*Tf. 943 76 53 55*



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
**AGENTEA**
IRAEGI ASEGURUAK
*Ramon Maria Lili 6, behea*
*20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54*
*Faxa: 943 76 41 54*
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



Gregorio Arrien, Eleizalderen senitarteko bat, Koldo Pereira, Ana Toledo eta Jose Jabier Granja.

# Koldo Eleizalderen lana eta bizitza liburu batean bilduta

**Koldo Eleizalde** idazle eta kazetari bergararraren bizitza eta lanari buruzko liburua aurkeztu zen hilaren 14an udaletxeko plenko aretoan. Eusko Ikaskuntzak Lankidetzan bildumaren barruan kaleratu du. Liburuaren aurkezpen ekitaldian, Gregorio Arrien eta Jose Jabier Granja (egileetako bi), Eleizalderen familiakide bat, Koldo Pereira udaleko Kultura zinegotzia, eta Ana Toledo Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea izan ziren.

Koldo Eleizalde bergararraren bizitza eta lana biltzen ditu liburuak 523 orrialdetan, eta Eleizaldek Eusko Ikaskuntzen alorrean izan duen garrantzia azpimarratzen da. Bestalde, politika, kazetaritza, literatura eta hizkuntzalaritzan egin zuen lanaren azterketa dela medio, euskararen aurrerabidean izandako eragina antzeman daiteke liburuan aurkezpenean azaldu zen bezala.

Horrez gain, haren literatur lana zabala izan ez arren, XX. mendeko lehen hamarkadetako nazionalismoko intelektual organikoaren eginkizuna ere isladatzen zuela gaineratu da.

Bestalde, abertzaletasunaren ikuspegitik, Eleizaldek bere garaian euskaltasuna arriskuan jartzen zuten arazoen multzoa ere bildu zuen bere lanean.

Euskara zein gaztelaniazko bertsioa ditu liburuak, eta Eleizalderen bizitzako arloak sei ataletan daude bilduta; bakoitza idazle batek egin du: familia eta ingurunea Idoia Ariznabarretak aztertu du; hizkuntza aspektuak Eleizalderen obran Patxi Orcasitasek, ideologia eta hezkuntza Eleizalderen baitan Gregorio Arrienek, eta kazetari lanak eta literatur obra eta Eusko Ikaskutzarekiko harremana Jose Javier Granjak. Bestalde, argazki bilduma bat ere badu liburuak.

## Bukatzear literatura eta kartel lehiaketetara aurkezteko epea

**Pentekoste jaietako** kartel lehiaketara aurkezteko epea datorren maiatzaren 2an amaituko da. Bestalde, Literatura lehiaketari dagokionez, XV. lehiaketa hain zuzen, parte hartzeko epea maiatzaren 2an amaituko da honetan ere.

Jaietako programaren azalerako kartel lehiaketan edonork har dezake parte, kartelak 60x42 zm.ko neurria izan beharko du eta kolore eta teknika libreak diren arren, honako testua derrigorrez azaldu beharko da: "2000ko Pentekoste Jaiak Bergaran". Kultur Etxean aurkeztu beharko dira.

Bestalde, Literatur lehiaketari dagokionez, Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Lan guztiek euskaraz idatziak izan beharko dute, eta adinaren arabera bost talde egongo dira: 1992-93an jaioak, 1990-91n jaioak, 1988-89an jaioak, 1985-87an jaioak eta 1984an edo aurretik jaiotakoak. Jorratu beharreko generoari dagokionez, lehenengo lau taldeetan ipuinak izan beharko dute eta azken taldean bi atal izango dira: ipuinena eta olerkiena.




Lanak "Literatura lehiaketa" izenburuaz Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura bidali edo eraman beharko dira.

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

ML
Manufacturas LARRAÑAGA
Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza
Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

# Nostalgia eta gizon baten harrotasuna tango doinuz

**Free Pelota** antzerki talde gasteiztarrak, "El marido de la Pakita" eskainiko du domekan, gaueko 21:30ean, Jam aretoan. Antzerkia eta musika elkartzen ditu lanak: batetik, Ramon Monje aktoreak, argentinar baten bizipenak kontatuko ditu, eta bestetik, Ruben Fernandez de Lecea musikariak tango erritmoa jarriko die bizipenoi.

Oroitzapenen mundua, horixe da "El marido de la Pakita" antzokirako ikuskizun hau. Roberto Carlos Alberto del Fierrok, "Pakita la del barrio" abeslari mexikarraren senar hipotetikoak, abeslariarekin izandako harremana kontatuko du taula gainean.

Argentinako gizon harro eta matxistak, ezin du jasan bere emazteak abeslari gisa lortu duen arrakasta eta ospea, eta bikoteak elkarrekin emandako denboran gertatutakoaren gaineko oso bertsio pertsonala azalduko du Roberto Carlos Alberto del Fierrok.



Bizitzako gogorapen hauen guztien berri, tangoaren bitartez emango du Ramon Monje aktore gasteiztarrak, Pakitaren senarrak.

## Antzinako kotxeen Euskal Herriko Itzulia Bergarara helduko da domekan

**Domekan**, hilak 30, antzinako kotxeen Euskal Herriko IV. Itzulia iritsiko da Bergarara. Itzulia gaur, eguakitza, hastekoa zen Donostian eta domekan Gasteiz-Bilbo hirugarren etapa jokatuko da. Partaideak eguerdi aldera iritsiko dira Bergarara eta Uberatik San Lorentzora joko dute. Ondoren, Matxiategi, Irala, San Martin Plaza, Komenio, Artekalea, Arruriaga, Masterreka eta Irizar kaleetatik igaroko dira, 12:30etik 16:00ak bitartean kotxeak Plazan ikusgai egongo direlarik. Nuvolari elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko itzuliaren IV. edizioan 1940. urte aurreko 40 bat kotxek hartuko dute parte. Agustin Lazpiur bergararra partaideen artean izango da. Honako hau lehen aldia da antzinako kotxeen Euskal Herriko Itzulia Bergaratik pasatzen dela. Itzulia astelehenean Donostian bukatuko da.

**erreseinak**




Grimm anaiak
***Grimm anaien ipuinak***
Kontakizunak

Grimm anaien ipuinen bilduma bat dakarkigu Pamiela argitaletxeak. Haurrendako eta supazterreko hirurogeita bi ipuin biltzen ditu Alemaniako bi anaia hauetan oinarritutako ipuin sorta honek. Ipuin bakoitzak, Otto Ubbelohde marrazkilari eta grabatzaile marburgarraren ilustrazioak ditu. Grimm anaien ipuinek Hessengo eskualdea dute bizileku, eta Ubbelohderen marrazkiek, inguru horretako gaiak eta paisaiak marraztu zituen bi anaien istorioak ilustratzeko. Ipuinak Genaro Gomez eskoriatzarrak itzuli ditu.

*-366 orr., Pamiela, 3.500 PTA*




Ruper Ordorika
***Gaur***
Pop

Kantari oñatiarrak 1999. urteko azaroaren 25 eta 26an, Bilboko Kafe Antzokian grabatutako zuzeneko diskoa dugu hau. Ruperrek aurreko diskoetan kaleratu dituen kantetako hamabost aukeratu eta zuzeneko disko honetan eskaini dizkigu. Berarekin batera aritu dira disko honetan, Javier Antoñana, gitarran eta ahotsean; Nando de la Casa, tekletan eta ahotsean; Angel Celada, baterian; Iñigo Goldarazena, baxu elektrikoan; Bixente Martinez, mandolinean eta gitarra akustikoan eta Joseba Tapia soinu txikian eta ahotsean.

*-Esan Ozenki Records, 2.000 PTA*

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

## denborapasa

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | ■ | | |
| 3 | | | | ■ | | | | | |
| 4 | | | ■ | | | | | ■ | |
| 5 | | ■ | | | | | | | ■ |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | ■ | | | ■ | | | |
| 8 | ■ | | | | | | ■ | | |
| 9 | | | | ■ | | | | | |
| 10 | | | | | ■ | | | | |

LUMA

### Ezker eskuma

1. Legeztatzearen ondorio. 2. Jakitunak. Modu atzizkia. 3. Gaude. Metal zuria. 4. Oinarrizko edaria. Zuhaitz-mota. Nitrogenoa. 5. Naizen hau. Marra. 6. Penagarri. 7. Akitu aditzaren infinitiboa. Bokal errepikatua. Erdi, hitz elkarketan. 8. Sufrea. Txakur-mota. Artsenikoa. 9. Fruitua. Unatu. 10. Niri. Hitza.

### Goitik behera

1. Adiskidetasun. 2. Edatekoak. Herri hizkeran, zer. 3. Iparraldean, gara. Arakatu. 4. Juntagailua. Herri hizkeran, eta. Gehiegi. 5. Zaren hori. Saila. Bat. 6. Kataluniako probintzia. 7. Txerri arra. Lo egiteko altzari. 8. Fosforoa. Nire. Ilinioa. 9. Eguzki. Emakume izena. 10. Nuen, hari. Ikusmenik ez duena.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

1. Legeztapen. 2. Aditzak. Ki. 3. Gara. Reno. 4. Ura. Arte. N. 5. Ni. Trazua. 6. Tamalgarri. 7. Aki. Oo. Ert. 8. S. Alano. As. 9. Uzta. Ahitu. 10. Neuri. Elea.

*Goitik behera*

1. Laguntasun. 2. Edariak. Ze. 3. Gira. Miatu. 4. Eta. Ta. Lar. 5. Zu. Arloa. I. 6. Tarragona. 7. Aketza. Ohe. 8. P. Neure. Il. 9. Eki. Arrate. 10. Nion. Istua.

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da 1968an inauguratu eta San Prudentzio egunean Elkartearen Eguna ospatzen duen elkarte honen izena?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zein da Kamelot musika talde heavyaren azken diskoaren izenburua?
A- "The fourth legacy"
B- "Highway to hell"
C- "Magical mistery tour"

2. Zenbat bisita gidatu antolatu ditu Turismo Bulegoak Aste Santuan?
A- 17
B- 23
C- 20

3. Zein taldek irabazi zuen iaz Ipintzako futbol txapelketa, gizonezkoen kategorian?
A- Tom Cat Argandolas
B- Gore
C- Shaktale

Super BM

IFA

***Super BM**k emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du Berrigarak asmatzaileon artean!*



Aurreko aleko saria, **Aritz Balda**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Aritzi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Artzamendi kalea**
Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-B**

**BONOFOTOA** ______________________

**GALDE DEBALDE** 1: 2: 3:

Izen-deiturak: Telefonoa:

*Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**Koipe**
**oliba olioa (1°), litroa**
**399 PTA!**
*Super BMen beti eskaintzarik onenak!*

**Orain dala 33 urte etorri zan Bergarara iruñar hau, bere senarra ezagutu eta berarekin ezkondu zanian. Bizitza erdi baiño gehixago daroia gure herrixan, eta orain dala 18 urtetik dauka Subijai umiendako erropa dendia.**

# *Mercedes Urdanoz*

**Holako dendia eukitzeko, umezalia izango zara, ezta?**
Bueno, egixa esan, ez asko. Pazientzia haundixa daukat, baiña ez jat gehixegi gustatzen.
**Zure lanian, zer da gehixen gustatzen jatzuna?**
Dana; saltzia, jendiarekiko harremana...
**Bergaran ondo janzten dira umiak?**
Bai, nik uste dot baietz.
**Zein etortzen da erropia erostera?**
Amak; aitaren bat edo beste be etorri izan da, baiña oso gutxitan.
**Askotan esaten da umiendako erropia oso garestixa dala, egixa da?**
Ez, nagusixendako erropian berdina da; baiña hain txikixa izaten da, jendiari pentsatzen jakola oso garestixa dala.
**Udaberrirako zelako erropia dator?**
Danetik, baiña aurreko urtetan baiño kolore apalaguak datoz aurten.
**Zu zeu zela janzten zara?**
Modia kontutan hartzen dot, baiña nahiko klasikia naiz.
**Nolatan etorri ziñan Bergarara?**
Nere senarra ezagutu neban, eta ezkondu eta bertara etorri giñan bizitzera.
**Ondo moldatu ziñan Bergarara?**
Ba ez; hasieran oso gaizki pasatu neban, baiña denporiarekin moldatu nitzan, eta oso gustora nago gaiñera.
**Zelakuak gara bergararrak?**
Leku danetan bezela, danetik dago.
**Sanferminak ala Bergarako Pazkuak?**
Sanferminak, jakiña.
**Ze hobby dauzkozu?**
Egixa esan, ez daukat hobbyrik, denporarik be ez daukat eta.
**Baiña artista samarra be bazara, ezta? Behin baiño gehixagotan irabazi dozu, behintzat, eskaparate lehiaketia.**
Bai, asko gustatzen jat nere eskaparatia txukun-txukun apaintzia.
**Zeure burua zela definittuko ziñuke?**
Ez dakit, bestiek esan biharko dabe zelakua naizen.
**Superstiziosua zara?**
Bai, pixkat bai; amuletuak dauzkat, adibidez, ez dakit zorte haundirik emoten dosten, baiña badaezpada be...
**Horoskopua irakurtzen dozu?**
Bai, baiña ez jat kasorik egitten.
**Amets bat?**
Dendia aurrera ateratzia, jendia nerekin gustora egon dedila, eta nere seme-alabak aurrera ateratzia.
**Inoiz egin dotzuen oparirik onena?**
Nere billobia.
**Aste Santuan non egon zara?**
Etxian, atsedena hartzen.
**Nora jungo ziñake gustora?**
Balneario batera.




# Ez ahaztu hegoaldea!

***UDAKO BRIGADAK***

*Mexiko, Nikaragua, Kuba eta Kolonbia*

AURKEZPEN HITZALDIA
Martitzena, maiatzak 3, 19:30etan Bergarako Kultur Etxean.
Hizlariak: K.I.ko partaideak



**BESTELAKO INFORMAZIOA (20:00etatik 22:00etara):**
BERGARA: 943 76 21 48
BILBO: martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03
DONOSTIA: eguenetan. 943 34 04 04
GASTEIZ: astelehen eta eguenetan. 945 14 93 79
IRUÑA: eguaztenetan. 948 20 60 55

BRIGADAK • 20 urte kidetasuna indartzen
KOMITE INTERNAZIONALISTAK



# San Prudentzioko jaiak, 1960

San Prudentzio eguna ospatzen da gaur, apirilak 28, eta Bergaran, Elorregi auzoan, hainbat ekitaldi izango dira astebukaeran santuaren omenezko jaiak ospatzeko. Goiko argazkia orain dela 40 urteko San Prudentzio egunekoa duzue, eta bertan Bergarako gazte koadrila bat ikus dezakezue. Antza denez, orduan ere giro bikaina izaten zen Elorregin, nahiz eta aurreko urteak izan omen ziren jaietako onenak, Jose Antonio Larrañagak esan digunaren arabera.

Kontua da argazkian agertzen den koadrila taxia hartu eta Elorregira joan zela 1960. urtean. Orduan 20 bat urte zituzten gehienek eta, beharbada, kotxea gidatzeko baimenik ez oraindik... Argazkian ikus daitekeenez, badirudi primeran pasatu zutela lagunartean eta Maiora izeneko argazkilariak erretratua atera zien. Elorregiko eliza aurrean erromeria izaten zen eta Oñatirako bidegurutzearen ondoan, gaur egun etxea dagoen tokian, taberna jartzen zen. Herritar asko joaten zen Elorregira eta inguruko herrietako gazteak ere etortzen ziren. Ea aurtengoan orduko giro bikainari eusten dioten auzokoek eta gainontzekoek...

Honako hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Jose Luis Iturralde, Angel Lizarralde, Jose Antonio Larrañaga, Jose Mari Zubimendi eta Antonio Martin.

Erdi makurtuta: Felix Lopez.

**Aurrean:** Jose Mari Anduaga.

*Argazkia: Jose Antonio Larrañaga*

**ADI!**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!


Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26
IRRINTZI
kafetegia

Zumelaga
JATETXEA
54 urte zuen zerbitzura!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

MAPFRE

*...Problemarik gabe*



**Gure bulegoetara etortzeagatik egindako zozketan**

**Jesus Marquez izan da bizikleta eta ekipoaren irabazlea. Zorionak!**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

*Zure bizi-kalitatea aseguratzen dugu*

# ARREGI AROZTEGIA

**SUKALDEAK**
**Arozlan mekanikoak**
**Ateak**
**Horma armairuak**
**Tarimak eta Parketak**
**Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak**
**PVCzko leihoak**







TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73

•

ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.
**Diseinua**, **kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR
**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.